• Halaber, hertsatuki eskatzen zaio gobernu taldeari, auzoak aisialdirako espazio estali bat, gutxienez, ez duen bitartean, akordioetara iristen saiatzeko, espazio publikoak erabili ahal izan daitezen, hala nola, ikastetxe publikoetakoak –haur, lehen nahiz bigarren hezkuntzako ikastetxeetakoak–, bai eta bestelakoak ere.

cada grupo municipal, y, por supuesto, abierta a la colaboración y participación activa de todas las asociaciones de barrio. Ante la propuesta realizada por EH Bildu de crear este foro abierto a la participación, los grupos del Gobierno respondieron que crearían una comisión técnica para estudiar el tema (en ella no estarían representados todos los grupos municipales, y las asociaciones de barrio tampoco podrían acudir como invitadas).

Esta claro que esta decisión limita el acceso a la información sobre el trabajo que realiza la comisión técnica, y es previsible que el nivel de exigencia de la misma también sea menor.

En su vista, en julio de 2016 presentamos una moción de control, en la que instábamos al Gobierno Municipal a:

• El Pleno del Ayuntamiento de Donostia insta al equipo de gobierno a presentar tanto a las asociaciones vecinales como a los grupos políticos municipales sus propuestas susceptibles de implantar espacios cubiertos gratuitos, y a tratar de consensuarlas las mismas con los agentes implicados.

• El Pleno del Ayuntamiento de Donostia insta al equipo de gobierno a elaborar un cronograma de actuaciones a ejecutar para ir paulatinamente extendiendo en todos los barrios, al menos, un espacio cubierto gratuito; y consecuentemente a tenerlo en cuenta en los borradores presupuestarios respectivos.

• Se insta del mismo modo al equipo de gobierno a que, mientras el barrio no cuente con al menos un espacio de esparcimiento cubierto, se trate de alcanzar los acuerdos que permitan utilizar espacios públicos como los de los colegios públicos, ya sean de infantil, primaria o secundaria, u otros.

Udal Gobernuak kontrol mozioaren aurka bozkatu zuen eta, bederatzi hilabete igaro ondoren, batzorde teknikoaren berririk gabe jarraitzen genuen. Gauzak horrela, 2017ko apirilean beste kontrol mozio bat aurkeztu genuen honako hau eskatuz:

El Gobierno municipal votó en contra de esta moción y, nueve meses más tarde, continuábamos sin noticias de la comisión técnica. Ante ello, en abril de 2017, presentamos la siguiente moción de control:

1. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari egin dezala aurten aisialdirako doako espazio estalien plan bat, eta aurkeztu, eztabaidatu eta, hala badagokio, adostu dezala auzo elkarteekin eta udal talde politikoekin.

1. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia insta al Gobierno Municipal a elaborar, en el presente año, un plan de espacios cubiertos de esparcimiento de uso gratuito, así como a presentar, discutir y en su caso, acordar el mismo, con las asociaciones de vecinos y con los grupos políticos del Ayuntamiento.

2. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio gobernu taldeari gero plangintza proposamen bat aurkez dezala, horiek pixkanaka jorratzeko edota gauzatzeko.

2. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia insta al equipo de gobierno a presentar posteriormente una propuesta de planificación para ir abordando y/o ejecutando progresivamente los mismos.

Bigarren aldiz, Udal Gobernuak gune estalien plan bat egitearen aurkako bozka eman zuen eta orduz geroztik, ez du bide horretan pausorik eman.

El Gobierno Municipal votó nuevamente en contra de la elaboración de un plan sobre espacios cubiertos y desde entonces no ha dado ningún paso adelante en ese camino.

Aldi berean, gure harridurarako, 2017ko abenduko batzordeetan PPk aurkeztutako ekimen baten harira, Hirigintzako delegatuak adierazi zuen Udal Gobernuak ez duela gune estalien inguruko planik edo kronogramarik egin eta ez dutela inongo ekintza berririk aurreikusten legegintzaldi honetan.

Asimismo, y para nuestra sorpresa, en la comisión de diciembre de 2017, ante una iniciativa presentada por el PP, el delegado de Urbanismo señaló que el Gobierno Municipal no ha elaborado ningún plan o cronograma sobre espacios cubiertos y que tampoco se prevé ninguna nueva acción para la presente legislatura.

Gainera, azken asteetan ikusi dugu bi gune estali egiteko obrak ere bertan behera gelditu direla (Zuberoa plaza eta Harria parkea, hain zuzen ere).

Además, estas últimas semanas hemos visto cómo han sido suspendidas dos obras que se iban a realizar para crear espacios cubiertos; en la plaza Zuberoa y en le parque de Harria, concretamente.

Otsaileko batzordeetan hauxe galdetu genion delegatuari:

En este sentido, en la comisión de febrero realizamos las siguientes preguntamos al delegado:

1. Zer dela eta gune estaliak aztertzeko batzordeak ez du lanketa edo plan zehatzik egin hiru urte hauetan?

2. Zertarako sortu du Udal Gobernuak batzorde tekniko hau, gero ez badu erabiltzen?

3. Zergatik ez da egin hiriko gune estalien inguruko plangintza eta azterketarik?

4. Zenbatero biltzen ari da batzorde tekniko hau? Zeintzuk dira haren funtzioak?

Delegatuak ez zuen inongo xehetasunik eman, eta ez zuen inongo konpromisorik hartu plangintza bat egiteari begira; are gehiago, delegatuak ez du uste plangintzarik egin behar denik.

Azaldutako egoera kontuan hartuta, behean sinatzen duen zinegotziak honako MOZIO hau aurkezten du:

KONTROL MOZIOA:

1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari gune estalien batzorde teknikoak legegintzaldi honetan egindako lanaren eta ondorioen inguruko txosten bat aurkez diezaiela Udalbatza osatzen duten talde guztiei hiru hilabeteko epean.

2.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari legegintzaldia amaitu baino lehen hiriko gune estalien inguruko plangintza proposamen bat aurkez dezala.

Donostian, 2018ko otsailaren 16an

Olaia Duarte López

1. ¿Cuál es el motivo por el que la comisión de estudio de espacios públicos no ha realizado un trabajo o plan concreto durante estos tres últimos años?

2. ¿Para qué ha creado el Gobierno Municipal esta comisión técnica si luego no la utiliza?

3. ¿Por qué no se ha realizado una planificación o estudio sobre espacios cubiertos en la ciudad?

4. ¿Con que periodicidad se reúne esta comisión técnica? ¿Cuáles son sus funciones?

Sin embargo, el delegado ni ofreció concreción alguna ni adoptó ningún compromiso de cara a elaborar una planificación. Más aún, el delegado no cree que sea preciso realizar una planificación.

Por todo ello, y teniendo en cuenta la situación expuesta, la concejala abajo firmante presenta la siguiente

MOCIÓN DE CONTROL

1.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia insta al Gobierno municipal a que, en un plazo de tres meses, presente a todos los grupos de la Corporación un informe sobre el trabajo realizado durante la presente legislatura por la comisión técnica de espacios cubiertos y las conclusiones a las que ha llegado.

2.- El Pleno del Ayuntamiento insta al Gobierno municipal a que, antes de que finalice esta legislatura, presente una propuesta de planificación sobre espacios cubiertos en la ciudad.

Donostian, 2018ko otsailaren 16an

Olaia Duarte López

EH Bildu udal taldeko zinegotzia".

EH Bildu udal taldeko zinegotzia".

Eztabaida hasita, Olaia Duarte Lopez andreak, Loïc Alejandro jaunak, Jose Maria Murguiondo Casal jaunak eta Enrique Ramos Vispo jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/la señores/a D.ª Olaia Duarte López, D. Loïc Alejandro, D. José María Murguiondo Casal y D. Enrique Ramos Vispo, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**II.2.5. Kontrol mozioa, EH BILDU Taldeak aurkeztua, gazteentzako apartamentuak Morlansen edo ekipamendutarako beste lursailen batean ez egiteko arrazoien gainean.**

"EH BILDU udal taldeko zinegotzi Ricardo Burutaran Ferrék, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikuluak jartzen duena aintzakotzat hartu eta KONTROL MOZIO hau dakarkio Udalbatzari, otsailaren 12an Lurraldearen Garapen eta Planifikazio Batzordean gazteentzako apartamentuak Morlansen edo ekipamendutarako beste lursailen batean ez egiteko arrazoien gainean egindako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Donostiako Etxegintza Udalaren etxebizitza baltzuak egindako lan batzuen artean, bada bat, orain dela bi urte egindakoa, Udalak eraiki gabe dituen ekipamendutarako lursail guztiak aztertzeko egin zena, lursail horiek zuzkidura

**II.2.5. Moción de control, presentada por el Grupo EH BILDU, sobre las razones por las que no se ha optado por construir apartamentos para jóvenes en Morlans o en alguna otra parcela de equipamiento.**

"Ricardo Burutaran Ferré, concejal del grupo municipal de EH BILDU, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico de Pleno presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL para ser tratada en Pleno, sobre las razones por las que no se ha optado por construir apartamentos para jóvenes en Morlans o en alguna otra parcela de equipamiento. La moción es consecuencia de la interpelación sustanciada en Comisión de Desarrollo y Planificación del Territorio el pasado 12 de febrero.

JUSTIFICACIÓN

Dentro de los trabajos realizados por la Sociedad Municipal de Vivienda (Donostiako Etxegintza) se realizó uno, hace dos años, consistente en analizar todas las parcelas de equipamiento que tiene el Ayuntamiento. El

apartamentuak egiteko egokiak diren ikusteko haren argitan.

objeto del citado estudio era analizar la idoneidad de dichas parcelas para la construcción de apartamentos dotacionales.

Hala, azterketa tekniko horrek, aurreneko balioespen bat egin zuen, zuzkidura lursail horiek apartamentuak egiteko egokiak ziren edo ez. Eta, zuzkidura apartamentuak egiteko gai edo egoki diren lursail horien artean, Udalak Morlansen dituen bi lursail ditugu.

Tras el análisis técnico realizado, se realizaba una primera valoración, sobre la idoneidad o no de las distintas parcelas dotacionales. Entre las parcelas que se consideran como aptas o idóneas paras la construcción de apartamentos dotacionales, se encuentran dos que el Ayuntamiento tiene en Morlans.

Bi lursail, bi, nahiz eta elkarren kontran dauden biak. Beraz, ederki asko erabil daiteke haietako bat auzoko kirol guneak egiteko eta gazteentzako zuzkidura apartamentuak egiteko bestea, alokairuan emateko gero.

En el caso de Morlans, se tratan de dos parcelas distintas aunque colindantes, de forma que es perfectamente factible destinar una de ellas para espacios deportivos del barrio y la segunda para la construcción de apartamentos dotacionales para jóvenes en alquiler.

Era berean, zuzkidura lursailak direnez, hirigintza aldetik egin behar diren izapideak ere samurragoak dira, apartamentu horiek egiteko izan behar den planeamendu figura onartzeko egin behar direnak. Izan ere, plan berezi bat egitea da nahikoa, eta, horrela, askoz ere laburragoak eta errazagoak dira aldaketa egiteko egin behar diren izapideak. Eta, jakina, horri esker, azkarrago egingo lirateke apartamentuak ere eta denok nahi genukeen gauza bat lortuko genuke.

Asimismo, el hecho de que se trate de parcelas dotacionales facilita la tramitación urbanística necesaria para la aprobación de la figura de planeamiento requerida para poder materializar la construcción de los citados apartamentos. De esta forma, el documento requerido es un Plan Especial, lo que acorta y simplifica considerablemente la tramitación de dicha modificación. Todo ello incide en facilitar una más pronta realización de los mismos, lo que evidentemente es una cuestión deseable.

Guk, eta beste udal talde batzuek, behin baino gehiagotan proposatu dizuegu Morlansen eta beste toki batzuetan diren zuzkidura lursail horiek gazteentzako zuzkidura apartamentuak egiteko erabiltzeko. Baina, hala ere, azkeneko interpelazioa egin eta egun batzuk pasatu arte, Udal Gobernuaren erantzuna ezezkoa izan da beti.

Son varias las ocasiones en que, desde distintos grupos municipales, les hemos propuesto que utilicen las parcelas dotacionales como la de Morlans u otra, para la construcción de apartamentos dotacionales para jóvenes. Sin embargo, hasta días después de la presentación de la última interpelación, la respuesta del Gobierno Municipal ha sido siempre negativa.

Hala, Udal Gobernuari horren inguruan galdetu diogunean, ez du asmatu ekimen horren kontrako botoa emateko —aurten bertan, orain

Interpelado al respecto el Gobierno Municipal, no alcanzó a dar una respuesta razonable que justificase los motivos que le han llevado la

hurrena— izan dituen arrazoien zentzuzko justifikazio bat ematen; eta, orain, bi urte pasatzen utzi eta gero, ematen du aintzakotzat hartuko duela ekimena.

Hori dela eta, hauxe da nire KONTROL MOZIOA:

1.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari lehenbailehen eskatzeko, berriz ere luzatu gabe, hizpide dugun lursailean zuzkidura apartamentuak izango dituen eraikin bat egiteko proiektu teknikoa idazteko lana, eta hartarako izapidetu behar den planeamendua ere eskatzeko eta/edo izapidetzeko.

Donostian, 2018ko otsailaren 16an

Izpta.: Ricardo Burutaran Ferré,
EH BILDU udal taldeko zinegotzia".

última vez este mismo año para votar en contra de la presente iniciativa, para después de "dejar de transcurrir dos años", tomar -al parecer- en consideración la misma.

A la vista de ello presento la siguiente MOCIÓN DE CONTROL:

1.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia insta al Gobierno Municipal a encargar, sin nuevas dilaciones, la redacción del proyecto técnico que contemple la construcción de un edificio de apartamentos dotacionales en la referida parcela municipal, así como a encargar y/o tramitar la aprobación del planeamiento necesario para ello.

En Donostia, a 16 de febrero de 2018

Fdo.: Ricardo Burutaran Ferré
Concejal del grupo municipal de EH BILDU".

Eztabaida hasita, Ricardo Burutaran Ferre jaunak, Loïc Alejandro jaunak, Enrique Ramos Vispo jaunak eta Miren Albistur Garmendia andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/la señores/a D. Ricardo Burutaran Ferré, D. Loïc Alejandro, D. Enrique Ramos Vispo y D.ª Miren Albistur Garmendia, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 10 – (5) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 10 – (5) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 0.**

---------------

**II.2.6. Kontrol mozioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, Donostiako Emakumeen Parte Hartze Soziopolitikoa dela eta.**

“Naiara Sampedro Perez EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2018ko otsailaren 12an Zerbitzu Orokorretako Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

AZALPENA

Donostia hiriko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Planaren seigarren lan lerroan, Donostiako Emakumeen Parte Hartze Soziopolitiko eta Ekonomikoari dagokionez, Donostiako Berdintasunaren Aldeko Kontseilua indartzea jasotzen da helburu gisa.

Agintaldi berria hasi zenetik, aldiz, Berdintasunerako kontseiluan herritar berriek izena eman duten arren, inboluzio bat dago eta Berdintasun Bulegotik egiten diren deialdietan hiriko emakumeen parte hartzea behera doala nabari da.

Donostiako Berdintasunerako azken kontseilu sektorialetan, elkarteetako ordezkariak oso haserre agertu dira. Jasotzen den informazioa eskasa da eta parte hartzaileek egiten dituzten proposamenak ez dira aintzat hartzen.

Berdintasun politiketan nekez egiten delako aurrera eta azkarregi atzeraka ari garelako, hauxe da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako

KONTROL MOZIOA:

**II.2.6. Moción de control, presentada por el Grupo EH BILDU, sobre la Participación Sociopolítica de las mujeres de San Sebastián.**

“Naiara Sampedro Pérez, concejala del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, somete la siguiente moción a la consideración del Ayuntamiento Pleno. La presente moción es consecuencia de la interpelación presentada en la Comisión de Servicios Generales el 12 de febrero de 2018.

JUSTIFICACIÓN

La sexta línea de intervención del plan, relativa a la Participación Sociopolítica y Económica de las Mujeres de San Sebastián, establece, como uno de los objetivos específicos, el refuerzo del Consejo de las Mujeres de San Sebastián para la Igualdad.

Sin embargo, desde que se iniciara este mandato, el Consejo de Igualdad, a pesar de que nuevas participantes se han inscrito en él, ha registrado una involución, y en las convocatorias realizadas por el Negociado de Igualdad puede observarse un descenso en la participación de las mujeres de la ciudad.

En los últimos Consejos Sectoriales para la Igualdad de San Sebastián, las representantes de las asociaciones se han mostrado muy enojadas. La información que se recibe es insuficiente y las propuestas que presentan las participantes no se tienen en cuenta.

Teniendo en cuenta que apenas se está avanzando en políticas de igualdad y que estamos retrocediendo excesivamente rápido, la concejala que suscribe presenta la siguiente

MOCIÓN DE CONTROL:

1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari arduraz har ditzala Donostiako Berdintasunerako Aholku Kontseiluaren funtzioak eta ahalegina egin dezala hiriko emakumeen parte hartze iraunkorra indartu eta bermatzeko.

2.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari, berdintasun eta udal politika orekatzaileak eta kohesionatuak eraikitze bidean, har ditzala beharrezko neurriak Udaleko arlo guztietan emakumeen parte hartzea indartzeko.

Donostian, 2018ko otsailaren 16an

Naiara Sampedro Perez
EH Bildu udal taldeko zinegotzia".

1.- El Pleno insta al Gobierno Municipal a que asuma con responsabilidad las funciones del Consejo Sectorial para la Igualdad de San Sebastián y a que haga un esfuerzo para reforzar y garantizar la participación permanente de las mujeres de la ciudad.

2.- El Pleno insta al Gobierno Municipal a que, en el proceso de construcción de unas políticas municipales equilibradas y cohesionadas en materia de igualdad, adopte las medidas precisas para reforzar la participación de las mujeres en todos los ámbitos municipales.

San Sebastián, 16 de febrero de 2018

Naiara Sampedro Pérez,
concejala del grupo municipal EH Bildu".

Eztabaida hasita, Naiara Sampedro Perez andreak, Amaia Martin Garin andreak eta Duñike Agirrezabalaga Ugarte andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto las señoras D.ª Naiara Sampedro Pérez, D.ª Amaia Martín Garín y D.ª Duñike Agirrezabalga Ugarte, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**II.2.7. Kontrol mozioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, Altzako Topo Geltokiaren erabiltzaileen kopurua dela eta.**

"Ayem Oskoz Urrutikoetxeak, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo

**II.2.7. Moción de control, presentada por el Grupo EH BILDU, sobre el número de personas usuarias de la estación de Topo de Altza.**

"Ayem Oskoz Urrutikoetxea, concejal del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 98

Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2018ko otsailaren 12an Gune Publikoetako Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Duela gutxi ezagutu genituen Euskotreneko zerbitzuen erabileraren inguruan Eusko Jaurlaritzak emandako datuak. Deigarria da Donostiako geltokietako bateko egoera; Altzakoa, hain zuzen ere. 2016ko irailean ireki zen Altzako geltokia eta, noski, zerbitzu berria denez, bidaiari berriak lortu ditu: Eusko Jaurlaritzaren arabera, iaz, 170.187 pertsona. Gogoan izan behar da Eneko Goia alkateak, Altzako geltokia zabaldu zenean, urtean milioi bat bidaiari izango zuela iragarri zuela. Eusko Jaurlaritzaren datuen arabera, ordea, alkateak iragarritakoaren %20ra ere ez da iritsi bidaiari kopurua.

Adituek onartu dute Altzako geltokiak ezin dituela aurreikusitako helburuak lortu, gaur egun mugatuak dituelako bere gaitasunak:Altza-Galtzaraborda lotura egiten ez den bitartean mugatuak jarraituko dute gaitasun horiek.

Datozen urteetan Euskotrenek egingo duen inbertsiorik handiena -Donostian, gutxienez- 200 milioi euro ingurukoa izango da: metro-pasantea, alegia. Baina hori ez da izango Altzako geltokiak bere gaitasun guztiak garatzeko soluzioa; adituek esan duten bezala, Galtzarabordarekin lotura egitea delako. Hala ere, guk dakigula, Eusko Jaurlaritzak ez du inongo aurreikuspenik proiektu honetan: ez hura gauzatzeko datarik, ez diru partidarik.

del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente moción para su tratamiento en Pleno. La presente moción es consecuencia de la interpelación presentada en la Comisión de Espacio Público el 12 de febrero de 2018.

JUSTIFICACIÓN

Hace poco hemos conocido los datos sobre el uso de los servicios de Euskotren, facilitados por el Gobierno Vasco. Llama la atención el dato referente a una de las estaciones de San Sebastián, concretamente el dato sobre la estación de Altza. La apertura de dicha estación se produjo en septiembre del 2016, y, lógicamente, al tratarse de un servicio nuevo, se han registrado nuevos viajeros y viajeras: el año pasado, 170.187 personas hicieron uso de este servicio, según los datos proporcionados por el Gobierno Vasco. Hay que recordar que el alcalde, Eneko Goia, en el acto de inauguración de la estación de Altza, señaló que se prevían, al año, un millon de viajeros y viajeras Sin embargo, según los datos que el Gobierno Vasco ha dado a conocer, el número de viajeros y viajeras no supone ni el 20 % de lo previsto por el alcalde.

Personas expertas han reconocido que la estación de Altza no puede alcanzar los objetivos previstos, debido a que su potencial presenta muchas limitaciones, que no podrán ser solventadas mientras no se realice la conexión Altza-Galtzaraborda

La inversión más importante que Euskotren realizará en los próximos años –por lo menos, en San Sebastián– rondará los 200 millones de euros. Nos estamos refiriendo a la pasante de metro. Sin embargo, esta actuación no será la solución que desarrolle todo el potencial de la estación de Altza, ya que, según han señalado personas expertas, la solución pasa por realizar la conexión con Galtzaraborda. A pesar de ello, no nos consta que el Gobierno

Vasco haya realizado ninguna previsión con respecto a este proyecto: no ha establecido una fecha pasa su ejecución, ni ha consignado la partida presupuestaria necesaria para ello.

Bien bitartean, Altzak oso-oso gutxi erabilitako geltoki batekin jarraitzen du eta altzatarrek, gainerako donostiarrek baino tren maiztasun okerragoekin. Eta Udal Gobernua, isilik, Altza-Galtzaraborda lehentasun bezala hartu gabe eta, norabide horretan, ezer ere egin gabe.

Mientras tanto, el barrio de Altza continúa teniendo una estación infrautilizada, y los y las altzatarras gozan de una frecuencia de trenes mucho menor que el resto de los y las donostiarras. El Gobierno Municipal, por su parte, permanece callado, no otorga la prioridad necesaria a este proyecto y no hace nada en este sentido.

Horiek horrela, hauxe da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako

Es por ello por lo que el concejal abajo firmante presenta la siguiente

KONTROL MOZIOA:

MOCIÓN DE CONTROL

1.- Udalbatzak eskatzen dio Udal Gobernuari Eusko Jaurlaritzaren aurrean egin beharreko lanak egin ditzala, lehentasunez, eta altzatarren eta gainerako donostiarren interesen defentsan, Altza-Galtzaraborda adarraren eraikuntza errealitate bihur dadin.

1.- El Pleno solicita al Gobierno Municipal que, con carácter prioritario, realice las gestiones necesarias ante el Gobierno Vasco, en defensa de los intereses de los y las altzatarras y del resto de la ciudadanía donostiarra, para que la construcción del tramo Altza-Galtzaraborda sea una realidad.

Donostian, 2018ko otsaileren 16an

San Sebastián, 16 de febrero de 2018

Ayem Oskoz Urrutikoetxea
EH Bildu udal taldeko zinegotzia".

Ayem Oskoz Urrutikoetxea
concejal del grupo municipal EH Bildu".

Eztabaida hasita, Ayem Oskoz Urrutikoetxea jaunak, Ernesto Gasco Gonzalo jaunak eta Pilar Arana Perez andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/la señores/a D. Ayem Oskoz Urrutikoetxea, D. Ernesto Gasco Gonzalo y D.ª Pilar Arana Pérez, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**

**ALDEKO BOTOAK: 5 – (3) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 18 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**VOTOS A FAVOR: 5 – (3) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 18 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENCIONES: 0.**

---------------

**II.2.8. EH BILDU taldeak aurkeztua, Añorga Kultur eta Kirol elkartearen egoera dela eta.**

**II.2.8. Moción de control, presentada por el Grupo EH BILDU, sobre la situación de la asociación "Añorga Kultur eta Kirol elkartea".**

**KENDUA.**

**RETIRADO.**

---------------

**II.2.9. Kontrol mozioa, IRABAZI DONOSTIA Taldeak aurkeztua, San Bartolome elizaren zati bat eraisteak agerian utzi dituen arazoei buruzkoa.**

“Irabazi Donostia udal taldeko zinegotzi Loïc Alejandrok, Udalbatzaren Araudi Organikoko 98. artikuluan oinarrituta, KONTROL MOZIO hau aurkezten du, San Bartolome elizaren zati bat eraisteak agerian utzi dituen arazoei buruz hilabete honetako Lurraldearen Garapen eta Planifikazio Batzordean egindako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Urtarrilaren 8an, Catalonia ostalaritza-enpresak San Bartolomeko komentuko eliza eraisteari ekin zion. Ancorak eta muinoa defendatzeko elkarteak gertatutakoa jakinarazi zuen berehala, eta Udalak eraisketa geldiarazi zuen. Eliza ebakita gelditu da eta transeptuaren erdia desagertu da.

**II.2.9. Moción de control, presentada por el Grupo IRABAZI DONOSTIA, sobre los problemas evidenciados por el derribo parcial de la iglesia de San Bartolomé.**

“Loïc Alejandro, Concejal del Grupo Municipal Irabazi Donostia, de acuerdo con el artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL, consecuencia de la interpelación en la Comisión de Desarrollo y Planificación del Territorio del presente mes relativa a los problemas evidenciados por el derribo parcial de la iglesia de San Bartolomé.

JUSTIFICACIÓN

El 8 de enero, la empresa hotelera Catalonia iniciaba el derribo de la iglesia del convento situado en San Bartolomé. Enseguida Ancora y la Asociación para la Defensa del Cerro avisaron de lo sucedido, y el Ayuntamiento paralizó el derribo. La iglesia quedó amputada y ha desaparecido la mitad del transepto.

Udal taldeekin, hiriko ondarea defendatzeko plataformekin eta Ondarearen Foroarekin eginiko bilera informal batean, eraisketa hori baimendu gabea izan zela azaldu zen. Era berean, azaldu zen Udalak zutik dirauen zatia ez eraistea eta eraitsitakoa berritzea eskatzeko oinarri sendoak dituela, Administrazioak onartutako oinarrizko proiektuan ez baita adierazten eliza eraitsiko denik. Zinegotzi ordezkariak horri buruzko ebazpen bat sinatu zuen urtarrilaren 22an.

En una reunión informal con los grupos municipales y con las plataformas ciudadanas de defensa del patrimonio, así como en el Foro del Patrimonio, se explicó que ese derribo nunca fue autorizado. Asimismo se explicó que el Ayuntamiento tiene bases sólidas para exigir el no derribo de lo que queda en pie, y la reposición de lo derribado, ya que el proyecto básico aprobado por la Administración no indica que se procedería a derribar la iglesia. El Concejal Delegado firmó una resolución en este sentido el 22 de enero.

Dena den, Udalak eraisketa formalki onartu ez zuela argi badago ere, deigarria iruditzen zaigu sustatzailearen asmoak hauteman ez izana, zeuden zantzuak kontuan izanik:

No obstante, si queda claro que el Ayuntamiento no autorizó formalmente el derribo, nos resulta llamativo que no se haya podido percibir las intenciones de la promotora, dados los indicios que existían:

• Prentsan hotelaren proiektuari buruz argitaratutako informazioak pistak ematen ditu hotela egiteko eliza eraisteko beharra zegoela pentsatzeko.

• La información que salió en prensa sobre el proyecto de hotel da pistas sobre la necesidad de derribar la iglesia para realizarlo.

• Diseinuari buruzko zehaztapenak, San Bartolomeri dagokion Plan Orokorraren Aldaketan sartuta daudenak eta Arkilanek idatzirikoak (hotela ere diseinatu du arkitektura estudio horrek), HEOBPBren fitxan elizari eta komentuari buruz ezarritakoa argitzen dute eta elizaren babesaren malgutze gisa interpreta daitezke.

• Las determinaciones sobre la traza, introducidas en la Modificación del Plan General relativo a San Bartolomé y redactadas por Arkilan (el estudio de arquitectura que ha diseñado también el hotel), y que matiza lo que se estipula en la ficha del PEPPUC sobre la iglesia y el convento, se pueden interpretar como una flexibilización de la protección de la iglesia.

• Egikaritze proiektuak ezin nahasizko informazioa du sustatzaileak eliza eraisteko asmoa zuela ikusteko, baina Udalak ez zituen formalki aztertu haren eraikuntzako alderdiak.

◦ "Eraikuntzarik gabeko" orube batean ari zirela zioen.
◦ DER 1 planoan eraisketak errotuladore horiarekin adierazita daude.
◦ Aurrekontuetan, pareten eraisketak

• El proyecto de ejecución, cuyos aspectos constructivos no fueron analizados formalmente por el Ayuntamiento, contiene información inequívoca sobre la intención de la promotora de derribar la iglesia.

◦ Decía que se trababa en un solar "libre de edificaciones".
◦ En el plano DER 1 aparecen los derribos marcados en rotulador amarillo.
◦ En los presupuestos hay una partida que

eragindako hondakinak ezabatzeko behar den zenbatekoarekin gutxi gorabehera bat datorren diru partida bat dago.

• Udal teknikariek egikaritze proiektutik aztertu zituzten elementuen artean dago "Zimenduen geometria zehatza eta kokapena zehazten duen zimenduen planoa UTM (ETRS89) koordinatuekin”. Asmoa paretak kontserbatzea izango balitz, zimenduak nahiko desberdinak izango lirateke egikaritze proiektuan proposatzen direnekin alderatuz.

• Udalak sinatutako lerrokadura eta sestra lerroen planoak ere informazio argia ematen du, profesional batek sustatzaileak elizarekin zer asmo dituen ondorioztatzeko modukoa.

Ohar horien erantzun gisa, Gobernuak eraisketa hark baimenik ez izateari eta espedientearen tratamendu formalari buruzko azalpenak errepikatu zituen batzordean, baina ez zigun argitu zergatik ezin izan zen sustatzailearen asmoei buruzko ezer hauteman. Zantzu horiek guztiak ikusirik, ulergaitza egiten zaigu Gobernuarentzat eraisketa hori sorpresa bat izatea.

Horrek nolabaiteko interes, sentsibilitate eta/edo kontrol falta adierazten du, eliza eraistea ekarri duena eta hiritarrei, administrazioari, Gobernuari eta sustatzaileari atsekabea eragin diena. Hori guztia ekiditea posible izango zen, Gobernuak sustatzailearen asmoak hauteman ahal izan balitu eta gaia harekin aurrez argitu izan balu. Baina ez zen egin nahi edo ahal izan.

Beste alde batetik, Ondarearen Foroaren azken saioan, oinarrizko egikaritze proiektuen balidazio mekanika zein zen zehaztu zen: izapideak bizkortzeko helburuz, Udalak

coincide mas o menos con la necesaria para eliminar la cantidad de escombros originada por el derribo de los muros.

• Entre los elementos del proyecto de ejecución que sí fueron analizados por los técnicos municipales está el “Plano de cimentación detallando la geometría exacta y la ubicación de la cimentación en coordenadas UTM (ETRS89)”. Si la intención hubiera sido la de mantener los muros, la cimentación hubiera sido bastante distinta a la que se propone en el proyecto de ejecución.

• El plano de tira de cuerdas suscrito por el Ayuntamiento contiene también información inequívoca de la que un profesional puede deducir las intenciones de la promotora sobre la iglesia.

Como respuesta a esas observaciones, en Comisión, el Gobierno reiteró sus explicaciones sobre la falta de autorización de derribo y sobre el tratamiento formal del expediente, pero no nos aclaró por qué no se había podido percibir nada de las intenciones de la promotora. A la vista de los numerosos indicios resulta incomprensible que, para el Gobierno, ese derribo fuera una sorpresa.

Esto denota una cierta falta de interés y/o sensibilidad y/o de control que ha llevado al derribo parcial de la iglesia, ocasionando un disgusto para la ciudadanía, la administración, el Gobierno y la promotora. Todo esto se habría podido evitar si el Gobierno hubiera podido percibir las intenciones de la promotora y hubiera aclarado el tema con la ella de forma previa. Cosa que no se quiso o no se pudo hacer.

Por otro lado, en la última sesión del Foro del Patrimonio, se detalló la mecánica de validación de los proyectos básicos y de ejecución: con el fin de agilizar los trámites, el

oinarrizko proiektua onartzen du, eta ondoren Arkitektoen Kolegioak ematen dio oniritzia egikaritze proiektuari. Oniritzi horrek, funtsean, proiektua arkitekto profesional kide batek egina dela ziurtatzen du, ia ez besterik. Egikaritze proiektutik, Udalak lizentziaren baldintzetan adierazitako alderdiak bakarrik aztertu zituen, dokumentuaren gainerako zatiei erreparatu gabe. Zinegotzi ordezkariak behin baino gehiagotan azaldu zuen hori zela eraisketa ez hauteman izanaren arrazoia, eta azkenean, jatorrizko elizaren zati bat behin betiko galdu dela. Hori dela eta, beharrezkoa iruditzen zaigu babestutako elementu bat hirigintza proiektu batean nahasita dagoenean, kontrolerako mekanismo formalak egotea babestutako elementu horren kontserbazioa bermatzeko.

Ayuntamiento aprueba el proyecto básico, y el Colegio de Arquitectos visa, posteriormente, el proyecto de ejecución. Este visado supone simplemente la certificación de que el proyecto ha sido hecho por un arquitecto profesional colegiado, y poco mas. Del proyecto de ejecución, el Ayuntamiento unicamente analizó los aspectos señalados en el condicionado de la licencia sin entrar en los demás aspectos del documento. El Concejal Delegado explicó en varias ocasiones que por ese motivo el derribo no fue detectado y finalmente una parte de la iglesia original ha sido definitivamente perdida. Por este motivo nos parece oportuno buscar soluciones para que, cuando un elemento protegido está implicado en un proyecto urbanístico, existan mecanismos formales de control que garanticen la conservación del elemento protegido.

Sustatzaileari aplikatuko zaion zehapenari dagokionez, duen larritasunaren zehaztapenak alderdi garrantzitsu bat kontuan izan behar duela uste dugu: duen izaera zentzagarria. Zehapenen helburua pertsonei edo erakundeei onartuta ez dagoen zerbait egiteko asmoa kentzea da. Sustatzaile bati merkeago ateratzen bazaio debekatuta dagoen zerbait egin eta isun bat ordaintzea, zuzena dena egitea baino, zehapenaren eragin zentzagarria guztiz desagertzen da eta abusu gehiagorako bide ematen du.

Respecto a la sanción que se le aplicará a la promotora, consideramos que la determinación de su gravedad debe integrar un aspecto importante: el carácter ejemplarizante de la misma. Las sanciones sirven para disuadir a las personas o entidades hacer algo que no está permitido. Si a una promotora le sale más barato hacer algo prohibido y pagar una eventual multa que hacer lo correcto, el efecto disuasorio de la sanción desaparece completamente y esto abre la puerta a más abusos.

Horregatik guztiagatik, honako kontrol mozio hau aurkezten dugu:

Por todo lo anteriormente expuesto, presentamos la siguiente:

KONTROL MOZIOA

MOCIÓN DE CONTROL

1. Donostiako Udalbatzak udal Gobernuari eskatzen dio alda ditzala dauden protokolo formalak, babestutako elementu bat hirigintza proiektu batean nahasita dagoenean kontrolerako mekanismo formalak egon daitezen babestutako elementuaren

1. El Ayuntamiento Pleno de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno municipal a modificar los protocolos formales existentes de tal forma que, cuando un elemento protegido está implicado en un proyecto urbanístico, existan mecanismos formales de control que

kontserbazioa bermatzeko.

2. San Bartolome elizaren zati baten eraisketarekin gertatutakoaren larritasuna ikusirik, Donostiako Udalbatzak Gobernu taldeari eskatzen dio aplika diezaiola eraisketaren erantzulea den enpresari ahalik eta zehapen handiena, zentzagarria izan dadin eta disuasio efektua izan dezan.

Donostia, 2018ko otsailaren 16a

Sin.: Loïc Alejandro,
Irabazi Donostia taldeko zinegotzia".

garanticen la conservación del elemento protegido.

2. Dada la gravedad de lo sucedido con el derribo parcial de la iglesia de San Bartolomé, el Ayuntamiento Pleno de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno municipal a aplicar a la empresa responsable del derribo, la máxima sanción posible con le fin de que sea ejemplarizante y tenga un efecto disuasorio.

Donostia, a 16 de febrero de 2018

Fdo. Loïc Alejandro
Concejal del Grupo Irabazi Donostia".

Eztabaida hasita, Loïc Alejandro jaunak, Ricardo Burutaran Ferre jaunak eta Enrique Ramos Vispo jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los señores D. Loïc Alejandro, D. Ricardo Burutaran Ferré y D. Enrique Ramos Vispo, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**HALA ESKATU DUTENEZ, BOZKETA PUNTUKA EGITEA ONARTU DA / PREVIA SOLICITUD, SE ACCEDE A LA VOTACIÓN POR PUNTOS:**

**9. KONTROL MOZIOAREN 1.GO PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 1 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 9:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 10 – (5) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 13 – (6) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 10 – (5) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 13 – (6) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 0.**

**9. KONTROL MOZIOAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 2 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 9:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 2 – IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 16 – (6) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENTZIOAK: 5 – EH BILDU.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 2 – IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 16 – (6) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENCIONES: 5 – EH BILDU.**

---------------

**II.2.10. Kontrol mozioa, IRABAZI DONOSTIA Taldeak aurkeztua, emakumeak kontratatzeko ematen diren laguntzei buruzkoa.**

“Irabazi Donostia udal taldearen bozeramaile Amaia Martin Garinek, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikuluan oinarrituta, KONTROL MOZIO hau aurkezten du, Donostia Sustapena sozietateak hirian emakumeak kontratatzeko ematen dituen laguntzei buruz PERTSONENTZAKO ZERBITZUEN BATZORDEAN egindako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Donostiako Sustapenak, iaz, Donostia UP! 2017 Planaren barruan, 160.000 euro bideratu zituen "ostalaritzako eta merkataritzako sektoreetan 45 urtetik gorako Donostiako langabeentzat enplegua sortzea sustatzera bideratutako diru laguntzak” izeneko ildoaren barruan. Laguntzen xede diren sektoreetan aldi baterako kontratazio ugari egiten direla hauteman da, lanaldi partzialekoak, eta sarri askotan ezkutuko ekonomiaren barruan; horrez gainera, emakume askok lan egiten dute sektore horietan.

**II.2.10. Moción de control, presentada por el Grupo IRABAZI DONOSTIA, sobre las ayudas para la contratación de mujeres.**

“Amaia Martin Garin, Portavoz del Grupo Municipal Irabazi Donostia, de acuerdo con el artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL, consecuencia de la interpelación en la Comisión de SERVICIOS A LAS PERSONAS sobre las ayudas de Fomento para la contratación de mujeres en la ciudad.

JUSTIFICACIÓN

La Sociedad de Fomento el pasado año en el marco del Plan Donostia-San Sebastián UP! 2017 destinó 160.000 euros dentro de la línea de “ayudas económicas para la contratación en los sectores de hostelería y comercio dirigidas a promover la generación de empleo de personas desempleadas mayores de 45 años de San Sebastián”. Estas ayudas están dirigidas a los sectores en los que se detecta un importante número de contrataciones temporales, a tiempo parcial, y en muchos casos dentro de la economía sumergida, en

los que además trabajan muchas mujeres.

Donostiako Sustapenak berdintasuneko txosten bat egin du 2012 eta 2016 urteen artean kontratazioko emandako diru laguntza horiek izandako bilakaeraren gainean. Analisi hori lau ardatz hauetan oinarritu da:

- enpresei kontrata dezaten emandako laguntzak/diru laguntzak
- enpresak sortzeko emandako laguntzak/diru laguntzak
- gizarteratze programen barruan egindako kontratazioak (lan sustapena)
- nazioartekotze bekak

La sociedad de Fomento ha elaborado un informe de igualdad sobre la evolución de tales ayudas para la contratación entre 2012 y 2016. El análisis se ha basado en los cuatro siguientes ejes:

• ayudas / subvenciones concedidas por contrataciones a empresas
• ayudas / subvenciones concedidas por creación de empresas
• contrataciones realizadas en programas de inserción (fomento del empleo)
• becas de internacionalización

Generoaren ikuspuntutik, langabeak kontratatzeko diru laguntza horien bilakaerari buruzko analisiak errealitate kezkagarri bat islatzen du. 2012 eta 2016 urteen arteko bilakaerari begiratuta, diru laguntza horien bidez kontratatutako emakumeen kopurua gizonena baino handiagoa bada ere, zerbitzuen sektorean emakumeen enplegagarritasuna handia delako, seguruenik, emakume bat kontratatzeagatik emandako diru laguntzak gizonak kontratatzeagatik ematen direnak baino 822 euro baxuagoak dira, batez beste. Egitate horrek harreman zuzena du sinatzen diren kontratu motekin, emakumeek sinatzen dituzten kontratu gehienak lanaldi partzialekoak baitira. Lanaldi partzialeko kontratuek soldata arrakala handiagotzen dute, hortaz.

Desde el punto de vista de género, el análisis de la evolución de tales subvenciones para la contratación personas desempleadas reflejan una realidad preocupante. A pesar de que el número de mujeres contratadas a través de tales subvenciones, según se observa en la evolución entre 2012 y 2016, es mayor que el de los hombres, fruto probablemente de la alta empleabilidad de las mujeres en el sector servicios, las cuantías medias de la subvención por contratar a una mujer son de 822 euros de media menos que a los hombres. Este hecho tiene una relación directa con el tipo de contratos que se llevan a cabo, siendo para ellas, en su mayoría contratos a tiempo parcial. La contratación a tiempo parcial de igual modo contribuye a incrementar la brecha salarial.

Hain zuzen ere, soldata arrakala areagotu egin da EAEn azken urteotan. Zerbitzuen sektorean soldatek behera egitearen ondorioz, erabat feminizatuta dagoen sektore horrek okerrera egin du nabarmen, eta, orain, emakumeen soldata gizonen batez besteko soldataren % 75,7 baino ez da.

La brecha salarial ha crecido en los últimos años en Euskadi. La caída de los sueldos en el sector servicios ha provocado que este sector altamente feminizado marque un claro empeoramiento pasando a representar el salario de las mujeres un 75,7% del promedio de los hombres.

Azken urteotan tokiko enpresei langabeak kontrata ditzaten emandako diru laguntzen

Visto el balance de los últimos años en relación a las ayudas a empresas locales para

balantzea ikusita, laguntzak ez dira gai emakumeek gizonen aurrean pairatzen duten egiturazko ezberdintasuna orekatzeko.

Prekaritatea eta behin-behinekotasuna errepikatu egiten dira Donostia Sustapenak ematen dituen diru laguntza horiei esker egindako kontratazioetan ere. Hori dela eta, uste dugu beharrezkoa dela udal gobernuak eta horren mendeko erakundeek konpromisoak hartzea errealitate horri aurre egiteko; bestela, gizonen eta emakumeen arteko egiturazko ezberdintasuna kronifikatu dadin laguntzen ariko dira.

Datuek erakusten duten errealitate kezkagarriaren aurrean aurkeztu dugu gure:

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak gobernu taldeari eskatzen dio Donostia Sustapena sozietatearen Administrazio Kontseiluan behar diren aldaketak proposa ditzala enpresei kontratatzeko ematen dizkieten laguntzetan, modu horretan enplegu egonkorra eta kalitatezkoa sor dezaten hiriko emakumeentzat.

2. Donostiako Udalbatzak gobernu taldeari eskatzen dio diagnosi bat egin eta aurkeztu dezala, hiru hileko epean, hiriko emakumeek pairatzen duten egiturazko ezberdintasunari buruz, diagnosi horretatik abiatuta aipatutako ezberdintasunari aurre egiteko oinarriak ezartzeko.

3. Donostiako Udalbatzak gobernu taldeari eskatzen dio plan bat aurkez dezala gure hirian gizonen eta emakumeen artean dagoen soldata arrakalaren aurka borrokatzeko.

Donostia, 2018ko otsailaren 16a

las contrataciones a personas desempleadas, éstas no consiguen paliar la desigualdad estructural de las mujeres respecto a los hombres en nuestra ciudad.

La realidad de precariedad y temporalidad se reproduce en las contrataciones incentivadas a través de estas ayudas que lleva a cabo la sociedad de Fomento. Por este motivo, planteamos la necesidad de que el gobierno municipal y sus entidades dependientes adquieran compromisos para hacer frente a esta realidad, de lo contrario estarán contribuyendo a cronificar la desigualdad estructural entre hombres y mujeres.

Ante la preocupante realidad que nos muestran los datos, presentamos la siguiente:

MOCIÓN DE CONTROL

1. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al equipo de gobierno a plantear en el Consejo de Administración de la sociedad de Fomento las modificaciones necesarias en las ayudas a la contratación por parte de empresas de modo que éstas sirvan para la generación de empleo estable y de calidad para las mujeres en la ciudad.

2. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al equipo de gobierno a realizar y presentar en el plazo de tres meses un diagnóstico sobre la desigualdad estructural de las mujeres en la ciudad que permita establecer las bases para hacer frente a la misma.

3. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al equipo de gobierno a presentar, en el plazo de seis meses, un plan de lucha contra la brecha salarial entre hombres y mujeres en nuestra ciudad.

Donostia a 16 de febrero de 2018

Sin.: Amaia Martin Garin,
Irabazi Donostia udal taldearen bozeramailea".

Fdo.: Amaia Martin Garin
Portavoz del Grupo Municipal Irabazi Donostia".

Eztabaida hasita, Amaia Martin Garin andreak, Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga andreak, Ernesto Gasco Gonzalo jaunak eta Jose Luis Arrue Pinto jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/las señores/as D.ª Amaia Martín Garín, D.ª Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga, D. Ernesto Gasco Gonzalo y D. José Luis Arrúe Pintó, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**HALA ESKATU DUTENEZ, BOZKETA PUNTUKA EGITEA ONARTU DA / PREVIA SOLICITUD, SE ACCEDE A LA VOTACIÓN POR PUNTOS:**

**10. KONTROL MOZIOAREN 1.GO PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 1 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 10:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADO.**
**UNANIMIDAD.**

**10. KONTROL MOZIOAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 2 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 10:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 22 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (5) EH BILDU. (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 0.**
**ABSTENTZIOAK: 3 – PP.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 22 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (5) EH BILDU. (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 0.**
**ABSTENCIONES: 3 – PP.**

**10. KONTROL MOZIOAREN 3. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 3 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 10:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
• Zuzenean eta automatikoki elikatzen den mapa online dinamiko bat erabiltzea. Horretarako, lan estua egin behar da hondakinak biltzen eta tratatzen lan egiten duten erakundeekin (Aldundia, San Markos, GHK), eta Udaleko Informazio Unitateak parte hartu beharko du, hiriari buruzko datu objektiboak dinamikoki biltzeko.

• Ir hacia un mapa online dinámico con alimentación directa y automática. Esto requiere un trabajo estrecho entre las diferentes instituciones implicadas en la recogida y tratamiento de los residuos (Diputación, San Marcos y GHK), y una intervención de la Unidad Municipal de Información que se encarga de la recogida dinámica de datos objetivos sobre la ciudad.

Hori guztia dela eta, kontrol mozio hau aurkezten dugu:

Por todo lo anteriormente expuesto, presentamos la siguiente:

KONTROL MOZIOA

MOCIÓN DE CONTROL

1. Donostiako Udalbatzak udal Gobernuari eskatzen dio hondakin fluxuen mapa publiko egin aurretik mapa hori Hiri Hondakinei buruzko Batzorde Ez Iraunkorrean aurkez dezala, mapa hobetzeko egon daitezkeen proposamen eta/edo iradokizunak jasotzeko.

1. El Ayuntamiento Pleno de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno municipal a que, antes de que se haga público el mapa de flujos de residuos, presente dicho mapa en el seno de la Comisión No Permanente Sobre Residuos Urbanos, con el fin de recabar eventuales observaciones y/o sugerencias de mejoras del mapa.

2. Donostiako Udalbatzak udal Gobernuari eskatzen dio hondakin fluxuen mapa publiko egin aurretik mapa hori Ingurumeneko Kontseilu Sektorialean aurkez dezala, mapa hobetzeko egon daitezkeen proposamen eta/edo iradokizunak jasotzeko.

2. El Ayuntamiento Pleno de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno municipal a que, antes de que se haga público el mapa de flujos de residuos, presente dicho mapa en el Consejo Sectorial de Medio Ambiente, con el fin de recabar eventuales observaciones y/o sugerencias de mejoras del mapa.

3. Donostiako Udalbatzak udal Gobernuari eskatzen dio hondakinen fluxuen mapa amaitu eta publiko egiten duenean maparen kopia itsaskorrak egin ditzala egokitzat jotzen den denbora tartean hiriko hondakinak biltzeko

3. El Ayuntamiento Pleno de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno municipal a que, una vez finalizado y hecho público el mapa de flujos de residuos, realice copias auto-adhesivas del mismo para dejarlas pegadas,

edukiontzietan itsasteko.

4. Donostiako Udalbatzak udal Gobernuari eskatzen dio behar diren kudeaketak egin ditzala, gutxienez urtean behin eta ahal dela hilabetean behin hondakin fluxuen mapa berritu ahal izateko eta, hala, herritarrei denboran zehar datu eguneratuak eskaini ahal izateko.

5. Donostiako Udalak udal Gobernuari eskatzen dio Informazioaren Udaleko Informazio Unitatea inplikatu dezala hondakinei buruzko datu objektiboak biltzeko eta tratatzeko, etengabe eguneratzen den hondakinen fluxuari buruzko mapa online bat lortzeko.

Donostia, 2018ko otsailaren 15a

Sin.: Loïc Alejandro,
Irabazi Donostia taldeko zinegotzia".

durante el tiempo que considere oportuno, en los propios contenedores de recogida de residuos de la ciudad.

4. El Ayuntamiento Pleno de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno municipal a que realice las gestiones oportunas para poder renovar, por lo menos una vez al año e idealmente cada mes, el mapa de flujos de residuos, y así proporcionar a la ciudadanía datos actualizados a lo largo del tiempo.

5. El Ayuntamiento Pleno de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno municipal a implicar a la Unidad Municipal de Información en la recogida y tratamiento de datos objetivos sobre residuos, con el objetivo de acercarse a una versión online constantemente actualizada del mapa de flujos de residuos.

Donostia, a 16 de febrero de 2018

Fdo. Loïc Alejandro
Concejal del Grupo Irabazi Donostia".

Eztabaida hasita, Loïc Alejandro jaunak, Ane Oyarbide Ochoa andreak eta Ayem Oskoz Urrutikoetxea jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/la señores/a D. Loïc Alejandro, D.ª Ane Oyarbide Ochoa y D. Ayem Oskoz Urrutikoetxea, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**HALA ESKATU DUTENEZ, BOZKETA PUNTUKA EGITEA ONARTU DA / PREVIA SOLICITUD, SE ACCEDE A LA VOTACIÓN POR PUNTOS:**

**15. KONTROL MOZIOAREN 1.GO PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 1 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 15:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADO.**

AHO BATEZ.

UNANIMIDAD.

15. KONTROL MOZIOAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 2 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 15:

BOZKETAREN EMAITZA:
ONARTUA.
AHO BATEZ.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:
APROBADO.
UNANIMIDAD.

15. KONTROL MOZIOAREN 3. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 3 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 15:

BOZKETAREN EMAITZA:
BAZTERTUA.
GEHIENGOA.
ALDEKO BOTOAK: 6 – (4) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.
AURKAKO BOTOAK: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.
ABSTENTZIOAK: 3 – PP.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:
RECHAZADO.
MAYORÍA.
VOTOS A FAVOR: 6 – (4) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.
VOTOS EN CONTRA: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.
ABSTENCIONES: 3 – PP.

15. KONTROL MOZIOAREN 4. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 4 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 15:

BOZKETAREN EMAITZA:
BAZTERTUA.
GEHIENGOA.
ALDEKO BOTOAK: 6 – (4) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.
AURKAKO BOTOAK: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.
ABSTENTZIOAK: 3 – PP.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:
RECHAZADO.
MAYORÍA.
VOTOS A FAVOR: 6 – (4) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.
VOTOS EN CONTRA: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.
ABSTENCIONES: 3 – PP.

15. KONTROL MOZIOAREN 5. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 5 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 15:

BOZKETAREN EMAITZA:

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:

**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 6 – (4) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 3 – PP.**

**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 6 – (4) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 3 – PP.**

---------------

**II.2.16. Kontrol mozioa, IRABAZI DONOSTIA Taldeak aurkeztua, 2017/2018ko enplegu plana dela eta.**

“Amaia Martin Garinek, Irabazi Donostia udal taldeko bozeramaileak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikuluarekin bat etorriz, KONTROL MOZIO hau aurkezten du, PERTSONENTZAKO ZERBITZUETAKO Batzordean 2017/2018ko enplegu planari buruz eginiko interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

2017/2018ko Enplegu Planak lan merkatura sartzeko zailtasun gehien dituzten sektoreetan 232 lanpostu sortzea sustatzen du, 45 urtetik gorakoentzat, 30 urtetik beherako emakumeentzat eta iraupen luzeko langabeentzat. Alkatearen hitzetan, “Enplegu Planaren helburu nagusia da hiriaren jarduera ekonomikoa sustatzea, enplegu egonkor eta kalitatezkoa sortuz”.

Udal Gobernuak berak emandako datuak ikusita, kontratazioak honela banatzen dira:

• 62 lanpostu zuzen Udalaren bitartez.

• 130 lanpostu, tokiko enpresek langabeei

**II.2.16. Moción de control, presentada por el Grupo IRABAZI DONOSTIA sobre el plan de empleo 2017/2018.**

“Amaia Martin Garin, Portavoz del Grupo Municipal Irabazi Donostia, de acuerdo con el artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL, consecuencia de la interpelación en la Comisión de SERVICIOS A LAS PERSONAS sobre el plan de empleo 2017/2018.

JUSTIFICACIÓN

El Plan de Empleo 2017 / 2018, que impulsa la creación de 232 puestos de trabajo en los sectores de mayor dificultad para el acceso al mercado laboral está destinado a mayores de 45 años, mujeres, menores de 30 años y personas paradas de larga duración. Según el alcalde, “el objetivo principal del Plan de Empleo es incentivar la actividad económica de la ciudad mediante la creación de empleo estable y de calidad “ .

A la vista de los datos ofrecidos por el propio gobierno municipal, tales contrataciones se distribuyen de tal forma:

• 62 puestos directos por parte del Ayuntamiento
• 130 puestos a través de contratos a

eginiko kontratuen bitartez.
• 40 lanpostu, autoenpleguaren bitartez.

Adierazitako 232 lanpostuetatik, Udalak 62 kontratazio zuzen baino ez ditu sortuko, eta guztiak hiru eta sei hilabete arteko kontratuetarako dira.

Era berean, udal kontratazio zuzenek, sexuen arabera bereizita (% 41 emakumeentzat, eta % 59 gizonentzat), nekez konpentsatuko dute emakumeek gure hirian jasaten duten egiturazko desberdinkeria.

Tokiko enpresek egingo dituzten diruz lagundutako 130 kontratuei dagokienez, eta azken urteotan eginiko kontratazioetan jasotako datuak kontuan hartuta, ikus daiteke badagoela joera bat hiriko emakumeen prekaritate egoera kroniko bihurtzea. Kontratazioen ehuneko handi bat emakumeentzat da, batez ere zerbitzuen sektorean, baina emakumeak kontratatzeko laguntzen zenbatekoa txikiagoa da, argi eta garbi, batez beste gizonentzat diren laguntzak baino.

Era berean, diruz laguntzen diren kontratazio horien behin-behinekotasunari dagokionez, deigarria da oraingo planak aldi baterako kontratazioak sustatzen dituela. Are gehiago, datuak ikusita, 64 laguntza erabiliko dira gehienez ere hiru hilabete edo gehiagoko iraupena duten kontratuetarako (denera, 64 laguntza) eta hogeita hamaika laguntza erabiliko dira sei hilabete edo gehiagoko kontratuak egingo dituzten enpresentzat, horiek guztiak lanaldi osoan.

Gogoratu behar dugu Euskadin 2017an sinatu ziren 933.000 kontratuetatik % 48k baino gehiagok hilabete baino gutxiago irauten

desempleados por parte de empresas locales
• 40 puestos a través del autoempleo

De los 232 puestos señalados, el ayuntamiento crea unicamente 62 contrataciones directas todas ellas para contratos de entre tres y seis meses de duración.

De igual modo, las contrataciones directas municipales desagregadas por sexos (41% para mujeres frente a un 59% destinado a hombres) difícilmente compensaran la desigualdad estructural que las mujeres padecen en nuestra ciudad.

En relación a los 130 contratos subvencionados que van a llevar a cabo las empresas locales y si tenemos en cuenta los datos recogidos en las contrataciones llevadas a cabo en los últimos años, se observa una tendencia que cronifica la situación de precariedad para las mujeres en la ciudad. Hay un mayor porcentaje de contrataciones destinadas a mujeres, en su mayor parte, en el sector servicios sin embargo, la cuantía de las ayudas para su contratación es claramente inferior a la de las ayudas que de media se destinan a hombres.

Del mismo modo, en relación a la temporalidad de tales contrataciones subvencionadas resulta llamativo que el plan actual potencie las contrataciones temporales. Es más, a la vista de los datos, se va a facilitar un máximo de 64 ayudas para contratos con una duración igual o superior a tres meses (un total de 64 ayudas máximas) frente a un máximo de treinta y un ayudas para aquellas empresas que vayan a hacer contratos de seis o más meses, todos ellos a tiempo completo.

Debemos recordar que en Euskadi en 2017 de los 933.000 contratos que se firmaron. más del 48% tuvieron una duración inferior a un

zutela. Horrenbestez, 2017/2018ko Enplegu Plan honetan ezarritako zenbatekoekin, Udal Gobernuak behin-behinekotasuna sustatzen du, eta horrekin larriagotu egiten du lehendik ere oso negatiboa zen egoera.

Enplegua funtsezko elementua da bizi proiektu duin bat garatu ahal izateko, eta Udalak badu gaitasuna horretan eragiteko, Eusko Jaurlaritzarekin batera urtarrilean aurkeztutakoa bezalako enplegu planak sortuz; hori dela eta, uste dugu kontratu egonkor eta kalitatezkoak sustatu behar direla.

Hori dela eta, kontrol mozio hau aurkezten dugu:

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak udal Gobernuari hertsatuki eskatzen dio alda ditzala tokiko enpresei kontratazioak egiteko ematen zaizkien laguntzen zenbatekoak, etorkizuneko enplegu planetan enplegu egonkor eta kalitatezkoen sorrera sustatu dadin.

Donostia, 2018ko otsailaren 16a

Sin.: Amaia Martin Garin,
Irabazi Donostia udal taldearen bozeramailea".

mes. Por lo tanto, con las cuantías establecidas en el actual plan de Empleo 2017/201, el gobierno municipal favorece la temporalidad y con ello agrava una situación de por si muy negativa.

Siendo el empleo un elemento fundamental a la hora de desarrollar un proyecto de vida digna y teniendo el ayuntamiento capacidad a la hora de influir sobre el mismo mediante la creación de planes de empleo, como el presentado el pasado mes de enero en colaboración con el gobierno vasco, planteamos la necesidad de incentivar contrataciones estables y de calidad.

Por este motivo presentamos la siguiente:

MOCIÓN DE CONTROL

1. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al gobierno municipal, a modificar las cuantías de las ayudas a empresas locales para contrataciones de modo que en los futuros planes de empleo se incentive la creación de empleo estable y de calidad.

Donostia a 16 de febrero de 2018

Fdo.: Amaia Martin Garin
Portavoz del Grupo Municipal Irabazi Donostia".

Eztabaida hasita, Amaia Martin Garin andreak, Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga andreak eta Ernesto Gasco Gonzalo jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto el/las señor/as D.ª Amaia Martín Garín, D.ª Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga y D. Ernesto Gasco Gonzalo, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**II.2.17. Kontrol mozioa, IRABAZI DONOSTIA Taldeak aurkeztua, etxebizitzari buruzko azterlanak direla eta.**

"Loïc Alejandrok, Irabazi Donostia udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikuluarekin bat etorriz, KONTROL MOZIO hau aurkeztu du, hilabete honetako Lurraldearen Garapen eta Planifikazio Batzordean etxebizitzari buruzko azterlanei eginiko interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Urtarrilaren 30ean, Gobernuak etxebizitzari buruzko azterlana aurkeztu zuen, Etxegintzaren aginduz eginikoa. Azterlan horrek hiriko hainbat eremu geografikotan etxebizitza librearen salmentaren prezioek izan duten bilakaerari buruzko ikusgarritasun geolokalizatu eta indibidualizatua ematen du, benetako informazio iturrietan oinarrituta.

Herritarren pertzepzioari buruzko azken inkestan jasotako informazioaren arabera, etxebizitza bat eskuratzea lehentasunezko arazoa da gure herritarrentzat. Eta, arazo hori konpontzeko, ezinbestekoa da ikusgarritasuna izatea.

Alde horretatik, uste dugu beharrezkoa dela gure hiriko etxebizitzaren arazoa hainbat ikuspegitatik aztertzea; izan ere, horrela egin ezean, irudi osatugabe eta zeharkako bat baino ez genuke lortuko ziur asko: erabilera

**II.2.17. Moción de control, presentada por el Grupo IRABAZI DONOSTIA sobre los estudios sobre la vivienda.**

"Loïc Alejandro, Concejal del Grupo Municipal Irabazi Donostia, de acuerdo con el artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL, consecuencia de la interpelación en la Comisión de Desarrollo y Planificación del Territorio del presente mes relativa a los estudios sobre la vivienda.

JUSTIFICACIÓN

El 30 de enero, el Gobierno presentó el estudio sobre vivienda, encargado por Etxegintza. Este estudio proporciona visibilidad, en base fuentes de información real, geolocalizada e individualizada, sobre la evolución de los precios de venta de vivienda libre en distintos ámbitos geográficos de la ciudad.

Según la información proporcionada por la última encuesta de percepción ciudadana, el acceso a la vivienda es un problema que nuestros y nuestras conciudadanas colocan como prioritario. Y para poder aportar soluciones es necesario tener visibilidad.

En este sentido, creemos que es necesario analizar la problemática de la vivienda en nuestra ciudad bajo varios ángulos de vista porque de no hacerlo, nos quedaríamos posiblemente con una imágen incompleta o

turistikoko etxebizitzak (hainbat txosten egin dira Hirigintzaren eta Donostia Turismoren eskutik); salgai dauden etxebizitza libreak (aurkeztu berri dena); etxebizitza hutsak; alokairuan dauden etxebizitzak; etxebizitza publikoak.

Batzordean, galdetu genuen ea zergatik ez diren etxebizitza hutsei, alokairuan dauden etxebizitzei eta etxebizitza publikoei buruzko azterlanak egiten, salgai dauden etxebizitzei buruz egin den moduan. Gobernuak erantzun zuen alderdi horiek prestatzen ari diren etorkizuneko Etxebizitza Planaren diagnostikoaren zatian garatuko direla, baina ez direla beren-beregi aztertuko. Gobernuak erabilitako argumentu nagusia da zaila dela etxebizitza hutsei eta alokairuan dauden etxebizitzei buruzko azterlanak egitea. Lehenik, uste duelako konplexua dela definitzea zer den etxebizitza huts bat, eta, bigarrenik, ez dagoelako salgai dauden etxebizitza libreei buruzko txostena egiteko erabili zirenak bezalako datu base zehatz eta benetakorik.

Nolanahi ere, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren webgunea kontsultatu besterik ez dago etxebizitza hutsaren definizio zehatz bat aurkitzeko. Lana egina dago, eta definizio bera erabiliz, hainbat erakundek eginiko azterlanen datuak aldera daitezke.

Gainera, erabilera turistikoko etxebizitza bat definitzea ere zaila da, baina horrek ez du eragotzi gai horri buruzko 2 azterlan egitea.

Datu iturri oso zehatzak lortzeko zailtasunari dagokionez, hori ez da arrazoi nahikoa azterlan bat egiteko asmoa alde batera uzteko.

Lehenik eta behin, hobe delako informazio bat izatea, nahi bezain zehatza izan ez arren, informaziorik ez izatea baino. Bereziki

incluso sesgada: viviendas de uso turístico (ya se han realizado varios informes desde urbanismo y desde San Sebastian Turismo); vivienda libre en venta (que se ha presentado ultimamente); vivienda vacía; vivienda en alquiler; vivienda pública.

En Comisión, preguntamos por qué motivo no se hacen estudios sobre la vivienda vacía, vivienda de alquiler y vivienda pública, de la misma forma que se hizo un estudio sobre la vivienda libre en venta. El Gobierno contestó que estos aspectos se desarrollarán en la parte de diagnóstico del futuro Plan de Vivienda que está preparando, pero que no serán objeto de estudios dedicados. El principal argumento esgrimido por el Gobierno es que es difícil realizar estudios sobre la vivienda vacía y la vivienda en alquiler. Primero porque considera que es complicado definir qué es una vivienda vacía, y segundo porque no existen bases de datos tan precisas y reales como las que sirvieron para hacer el informe sobre vivienda libre en venta.

No obstante, solo hace falta consultar la página web del Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda del Gobierno Vasco para encontrar una definición precisa de una vivienda vacía. El trabajo está hecho, y utilizar la misma definición permite comparar los datos entre estudios de diferentes instituciones.

Además, difícil también es definir qué es una vivienda de uso turístico, pero esto no ha impedido realizar 2 estudios sobre la cuestión.

En cuanto a la dificultad de obtener fuentes de datos muy precisos, no es razón suficiente para desistir de hacer estudios.

En primer lugar, porque es mejor tener una información, aunque no tan precisa como se quisiera, a no tener nada de información.

etxebizitzaren gaiaren kasuan, donostiarrek funtsezko arazotzat jo baitute.

Sobre todo en un tema como el de la vivienda, considerado como un problema fundamental por la ciudadanía donostiarra.

Bigarrenik, orain arte datu iturri oso zehatzak ez izatea ez delako inoiz azterlanak egiteko oztopo izan. Esate baterako, erabilera turistikoko etxebizitzen fenomenoa oso zaila da aztertzeko, testuinguru eta tipologia ugari daudelako, informazio iturriak gainezarri egiten direlako, eta fenomeno izugarri dinamiko eta likidoa delako. Baina hori guztia ez da eragozpena izan udal botere publikoak gai horri buruzko hainbat azterlan egiteko.

En segundo lugar, porque hasta ahora, no disponer de fuentes de datos muy precisos nunca ha sido un freno para hacer estudios. Por ejemplo, el fenómeno de las viviendas de uso turísticos es muy difícil de estudiar porque existe una multitud de contextos y tipologías, porque las fuentes de información se solapan, y porque es un fenómeno extremadamente dinámico y líquido. Pero esto no ha impedido al poder público municipal hacer varios estudios sobre la cuestión.

Hirugarrenik, eskura dauden datuak nahi bezain zehatzak ez diren arren fidagarritasun maila altuko datuak badaudelako: erakunde pribatuek sortutako estatistikak (Idealilsta, Fotocasa…), erakunde publikoek sortutakoak (Alokabide, Etxebideren ASAP programa) edo datu ofizialak (Etxebizitzaren Euskal Behatokia).

En tercer lugar, porque aunque los datos disponibles no sean tan precisos como se quisiera, sí existen datos con un alto grado de fiabilidad: estadísticas creadas desde entidades privadas (Idealista, Fotocasa, …) o publicas (Alokabide, programa ASAP de Etxebide), o datos oficiales (Observatorio Vasco de la Vivienda).

Gaiak herritarrentzat duen garrantzia kontuan hartuta, uste dugu etxebizitza hutsen eta alokairuan dauden etxebizitzen arazoak berariaz aztertu beharrekoak direla, eta ez dela nahikoa aurreikusten den Etxebizitza Planean sarrera gisa jorratzea. Hori guztia dela eta, kontrol mozio hau aurkezten dugu:

Dada la importancia del tema para la ciudadanía, creemos la problemática de la vivienda vacía y de alquiler debe ser objeto de estudios propios, y no solo servir de introducción en el Plan de Vivienda previsto. Por todo lo anteriormente expuesto, presentamos la siguiente:

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio bi azterlan agindu ditzala: bat hiriko etxebizitza hutsei buruzkoa eta beste bat alokairuan dauden etxebizitzei buruzkoa.

Donostia, 2018ko otsailaren 16a

Sin.: Loïc Alejandro,
Irabazi Donostia taldeko zinegotzia”.

MOCIÓN DE CONTROL

1. El Ayuntamiento Pleno de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno municipal a encargar la realización de dos estudios, uno sobre la vivienda vacía y otro sobre la vivienda en alquiler en la ciudad.

Donostia, a 16 de febrero de 2018

Fdo. Loïc Alejandro
Concejal del Grupo Irabazi Donostia”.

Loïc Alejandro jaunak parte hartu du puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Interviene en este punto el señor D. Loïc Alejandro, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**II.2.18. Kontrol mozioa, IRABAZI DONOSTIA Taldeak aurkeztua, diru laguntzei eta genero ikuspegiari buruzkoa.**

“Amaia Martin Garinek, Irabazi Donostia udal taldeko bozeramaileak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikuluarekin bat etorriz, KONTROL MOZIO hau aurkezten du PERTSONENTZAKO ZERBITZUETAKO Batzordean eginiko genero ikuspegia duten diru laguntzei buruzko interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Azken hamarkadetan, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko gaia administrazio publikoen agenda politikoan sartuz joan da pixkanaka, eta, horren ondorioz, administrazio horiek emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasuna lortzeko duten konpromisoarekin bat datozen oinarriz osatutako araudiak egin dira.

Nazioartean, helburu hori hitzarmen hauetan bilduta dago nagusiki:

**II.2.18. Moción de control, presentada por el Grupo IRABAZI DONOSTIA sobre subvenciones y perspectiva de género.**

“Amaia Martin Garin, Portavoz del Grupo Municipal Irabazi Donostia, de acuerdo con el artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL, consecuencia de la interpelación en la Comisión de SERVICIOS A LAS PERSONAS sobre subvenciones con perspectiva de género.

JUSTIFICACIÓN

En las últimas décadas la cuestión referida a la igualdad de mujeres y hombres ha ido introduciéndose de manera progresiva en la agenda política de las administraciones públicas promoviendose una normativa sentando las bases del compromiso de tales administraciones en la consecución de una igualdad real de mujeres y hombres.

En el ámbito internacional, este objetivo está recogido, principalmente en los siguientes acuerdos:

— Emakumeen eskubide politikoei buruzko konbentzioa
— Emakumeen aurkako bereizkeria era guztiak ezabatzeari buruzko Konbentzioa eta Konbentzioaren Protokolo Fakultatiboa.
— Emakumeen aurkako indarkeria ezabatzeari buruzko adierazpena.
— Beijingeko adierazpena eta Nazio Batuen emakumeei buruzko Munduko IV. Konferentziaren eta ondorengo saioen Ekintzarako Plataforma
— Eskubide Zibilei eta Politikoei buruzko Nazioarteko Itunak, baita Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalei buruzkoak ere
— Populazioari eta Garapenari buruzko Nazioarteko Konferentziaren Ekintza Programa (1994), eskubide sexualei eta ugalketa-eskubideei buruzkoa.

Europar Batasunaren esparruan, nabarmentzekoak dira Giza Eskubideen Europako Hitzarmena, Amsterdamgo Ituna eta Emakumearenganako indarkeriaren eta etxeko indarkeriaren aurkako borrokaren eta prebentzioaren Europako Kontseiluaren Hitzarmena (Istanbulen eginikoa, 2011ko maiatzaren 11n), baita 2002/73/EE, 2004/113/EE eta 2006/54/EE zuzentarauak ere.

Estatu mailan, oinarrizko erreferentziak Espainiako Konstituzioaren 9.2 eta 14. artikuluek osatzen dituzte, baita honako lege hauek ere: 30/2003 Legea, urriaren 13koa, Gobernuak egiten dituen arau-xedapenetan genero-eraginaren balioespena jasotzeko neurriei buruzkoa; 1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, Genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzkoa; 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirakoa, administrazio publikoak eta enpresak inplikatzen dituena; eta Genero Indarkeriaren aurkako Estatu Itun berria, 2017ko irailekoa.

— Convención sobre los derechos políticos de la mujer
— Convención sobre la eliminación de todas las formas de discriminación contra la mujer y Protocolo Facultativo a la Convención.
— Declaración sobre la eliminación de la violencia contra la mujer
— Declaración de Beijing y Plataforma para la Acción de la IV Conferencia Mundial sobre las Mujeres de las Naciones Unidas y sus posteriores sesiones
— Pactos Internacionales sobre Derechos Civiles y Políticos, y Derechos Económicos, Sociales y Culturales
— Programa para la Acción de la Conferencia Internacional sobre Población y Desarrollo - CIPD- (1994), sobre Derechos sexuales y reproductivos.

En el ámbito de la Unión Europea, cabe destacar el Convenio Europeo de Derechos Humanos, el Tratado de Ámsterdam y el Convenio del Consejo de Europa sobre prevención y lucha contra la violencia contra la mujer y la violencia doméstica, hecho en Estambul el 11 de mayo de 2011, así como las directivas 2002/73/CE, 2004/113/CE y 2006/54/CE.

A nivel estatal, las referencias fundamentales las constituyen los artículos 9.2 y 14 de la Constitución Española, así como la Ley 30/2003, de 13 de octubre, sobre medidas para incorporar la valoración del impacto de género en las disposiciones normativas que elabore el gobierno; Ley Orgánica 1/2004, de 28 de diciembre, de Medidas de Protección Integral contra la Violencia de Género; y la Ley Orgánica 3/2007, de 22 de marzo, para la igualdad efectiva de mujeres y hombres, que implica a las administraciones públicas y las empresas, asi como el reciente Pacto de Estado contra la Violencia de Género de septiembre de 2017.

Autonomia Erkidegoan, nabarmentzekoa da 4/2005 legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta gizonen berdintasunerakoa. Lege horrek ezartzen du Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioek, foru- eta udal-administrazioak barne, emakume eta gizonen berdintasunaren arloan dituzten eskumenen esparrua.

En el ámbito autonómico, cabe destacar la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres que establece el marco competencial en materia de igualdad de mujeres y hombres para las administraciones de la Comunidad Autónoma del País Vasco, incluidas las forales y municipales.

2015ean, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako Foru Araua (martxoaren 9ko 2/2015) onartu zen. Tokiko mailan, berdintasun planak izan dira tresna nagusia, eta eragin nabarmena izan dute herritarrengandik gertuen dagoen esparruan sortzen eta kudeatzen diren berdintasun politika publikoen arloan. Horiez gain, tokian tokiko berdintasun politikak indartzeko forma berriak ere landu dira. Hala, Donostian, orain, Berdintasun Ordenantza bat egiten ari gara, gure koalizioaren bultzadari eta Berdintasunaren Aholku Kontseiluan parte hartzen duen mugimendu feministaren lanari esker.

En 2015 se aprobó la Norma Foral 2/2015, de 9 de marzo, para la igualdad de mujeres y hombres y a nivel local, los planes de igualdad han sido el instrumento principal que, ha influido de manera notable en el rumbo de las políticas públicas de igualdad generadas y gestionadas en el ámbito más cercano a la ciudadanía. Junto a éstos, se han abordado nuevas formas de fortalecimiento de las políticas de igualdad locales. De este mod, en Donostia en estos momentos trabaja en la elaboración de una Ordenanza de Igualdad, gracias al impulso de nuestra coalición y el trabajo del movimiento feminista que participa en el Consejo Asesor de Igualdad.

Testuinguru horretan, Berdintasun Bulegoak egiten duen lana nabarmendu nahi dugu; izan ere, funtsezko lana egiten du hirian emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako politika eraginkorrak sustatzen, bizitzako arlo guztietan emakumeen eta gizonen arteko desberdinkeria eta emakumeenganako indarkeria eragiten duten egiturazko baldintzak gainditzeko.

En este contexto, señalamos la importancia del trabajo del negociado de Igualdad que a nivel local ealiza una labor fundamental en la promoción de políticas efectivas para la igualdad de mujeres y hombres en la ciudad, que superen las condiciones estructurales que reproducen la discriminación contra las mujeres y la desigualdad entre mujeres y hombres en todos los ámbitos de la vida.

2018ko udal aurrekontuak genero ikuspegitik aztertzean, Berdintasun Bulegoak analisi xeheago bat egin du aurrekontuko 106 programetako 37tan. Programa horiek aztertu ondoren, Berdintasun Bulegoak zenbait aholku eman ditu.

En el análisis de los presupuestos municipales de 2018 desde la perspectiva de género, el Negociado de igualdad ha realizado un análisis más detallado en 37 de los 106 programas presupuestarios. A raíz del análisis de tales programas, desde Igualdad hacen una serie de recomendaciones.

Hala, Gizarte Ongizatean, gizarte ekintzaren arloan lan egiten duten irabazi asmorik gabeko

Así, en Bienestar Social, en el apartado relativo a subvenciones a asociaciones sin

elkarteentzako diru laguntzei buruzko atalean, Berdintasun Bulegoak adierazi du elkarte horiek eragin zuzena dutela zaintzen arloan, eta arlo horretan emakumeen presentzia altua dela; hortaz, gomendatu du deialdi horretan berdintasunerako klausulak sartzea, bai eta generoan duen eraginari buruzko azterketa ere.

ánimo de lucho que desarrollen su actividad en el ámbito de la acción social, el negociado de igualdad señala la incidencia directa en relación a los cuidados, que tiene una relevancia de género alta, por lo que recomienda la inclusión de clausulas para la igualdad en dicha convocatoria, así como un análisis de su impacto de género.

Bestalde, adinekoak sustatzeari buruzko programan, laugarren kapituluan hainbat elkarterentzako diru laguntza izendunak jasotzen dira, eta ez dute berdintasun klausula espezifikorik.

Por otro lado, en el programa relativo a la promoción de personas mayores, tiene en su capítulo cuarto las subvenciones nominativas dirigidas a diferentes asociaciones no cuentan ninguna con clausulas específicas de igualdad.

Azkenik, Hezkuntza Programen barruan ikastetxeentzat eta hezkuntza arloko elkarteentzat dauden diru laguntzei dagokienez, Berdintasun Bulegoak adierazi du, balorazio irizpideak jasotzen dituzten oinarri arautzaileetan berdintasun irizpideak sartu beharko liratekeela, diruz laguntzen diren proiektuek genero ikuspegia izan dezaten sustatzeko.

Por último, dentro del programa Programas Educativos las subvenciones a centros de enseñanza y asociaciones del ámbito educativo, desde el negociado de igualdad se indica que, entre las bases reguladoras con criterios de valoración debieran incluirse los de igualdad con el fin de promover que los proyectos subvencionados cuenten con perspectiva de género.

Adierazitako arlo horietan lantzen den guztia oinarrizkoa da aldaketa sozial bat egiteko eta emakume eta gizonen arteko berdintasun benetakoa eta eraginkorra lortzeko; hori dela eta, uste dugu funtsezkoa dela berdintasun arloan proiektuak garatzeko aukera emango duten tresnak ezartzea.

Siendo uno de los pilares fundamentales a la hora de trabajar para un cambio social que permita una igualdad real y efectiva de mujeres y hombres todo lo que se trabaje en los ámbitos descritos consideramos fundamental establecer las herramientas que posibiliten el desarrollo de proyectos en el ámbito de la igualdad.

Gure taldeak hilabete honetan eginiko interpelazioari erantzunez, positibotzat jotzen dugu udal gobernuaren konpromisoa finkatzea Udalak martxan jartzen dituen hurrengo diru laguntzei begira, genero ikuspegia diru laguntza publikoak lortzeko klausuletan eta irizpideetan egon dadin.

En respuesta a la interpelación formulada por nuestro grupo este presente mes, consideramos positivo fijar el compromiso del gobierno municipal de cara a las siguientes subvenciones que el consistorio ponga en marcha de tal modo que la perspectiva de género esté en las clausulas y criterios para la obtención de subvenciones públicas.

Emakumeen eta gizonen arteko politiketan

Al objeto de avanzar, consolidar y dar

aurrera egiteko, horiek finkatzeko eta horiei iraunkortasuna emateko, kontrol mozio hau aurkezten dugu:

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak gobernu taldeari eskatzen dio berdintasun klausulak sar ditzala udalak eta/edo bere mendeko enpresa publikoek diru laguntza izendunak emateko hemendik aurrera sinatzen dituzten hitzarmenetan.

2. Donostiako Udalak gobernu taldeari eskatzen dio diru laguntza publiko guztien oinarri arautzaileetan berdintasunezko balorazio irizpideak sar ditzala, genero ikuspegia duten proiektuak diruz laguntzea sustatzeko.

Donostia, 2018ko otsailaren 16a

Sin.: Amaia Martin Garin,
Irabazi Donostia udal taldearen bozeramailea".

sostenibilidad a las políticas para la igualdad de mujeres y hombres, presentamos la siguiente:

MOCIÓN DE CONTROL

1. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al equipo de gobierno a incorporar clausulas de igualdad en los convenios que, de ahora en adelante, el ayuntamiento y/o sus empresas públicas dependientes firmen para la concesión de subvenciones nominativas.

2. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al equipo de gobierno a incorporar en las bases reguladoras de todas las subvenciones públicas criterios de valoración de igualdad con el fin de promover la subvención de proyectos que cuenten con perspectiva de género.

Donostia a 16 de febrero de 2018

Fdo.: Amaia Martin Garin
Portavoz del Grupo Municipal Irabazi Donostia".

Eztabaida hasita, Amaia Martin Garin andreak, Naiara Sampedro Perez andreak eta Duñike Agirrezabalaga Ugarte andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto las señoras D.ª Amaia Martín Garín, D.ª Naiara Sampedro Perez y D.ª Duñike Agirrezabalaga Ugarte, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**II.2.19. Kontrol mozioa, IRABAZI DONOSTIA Taldeak aurkeztua, zabortegi ilegalei buruzkoa.**

“Loïc Alejandrok, Irabazi Donostia udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikuluarekin bat etorriz, KONTROL MOZIO hau aurkeztu du, hilabete honetako Gune Publikoen Batzordean (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) zabortegi ilegalei buruz eginiko interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Hilabete honetako Gune Publikoen Batzordean (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) Eguzki kolektibo ekologistak salatutako zabortegi ilegal bati buruzko interpelazioa aurkeztu genuen. Zabortegi hori Urumeako autobiaren eta trenbideen artean dago, zehazki, Goiaz Txiki inguruan, eta obra hondakinak eta beste hondakin batzuk uzteko erabili da.

Ez da lehenengo aldia hirian hondakin ilegalak botatzen direla salatzen duguna. Zehazki, hainbat salaketa egin ditugu Ulian, Mendiola bidean, dagoen edukiontzi ilegal bati buruz, baita Ametzagainan uzten diren hondakin ilegalei buruz ere. Era berean, herritarren postontzia kontsultatuta, ikus daiteke herritarrek ere beste hainbat zabortegi ilegal seinalatu izan dituztela: Garberaren ekialdeko baratzeen gunean, Eskalantegi 74 helbidean, eta Azkuene 35etik gertu dagoen mendi hegal batean.

Kasu horietan, tokiko gobernuak konpromisoa hartu du kontrola indartzeko eta hondakin horiek botatzea prebenitzeko neurriak hartzeko, argudiatuz garbiketa zerbitzuak ez direla leku horietara iristen eta zaila dela leku horietara iristea. Hala ere, pertsona batzuek leku horietan hondakin handiak (telebistak eta

**II.2.19. Moción de control, presentada por el Grupo IRABAZI DONOSTIA, relativa a vertederos ilegales.**

“Loïc Alejandro, Concejal del Grupo Municipal Irabazi Donostia, de acuerdo con el artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL, consecuencia de la interpelación en la Comisión de Espacio Público, Obras y Servicios Urbanos del presente mes relativa a vertederos ilegales.

JUSTIFICACIÓN

En la comisión de Espacio Público, Obras y Servicios Urbanos del presente mes, interpelamos sobre un vertedero ilegal denunciado por el colectivo ecologista Eguzki ubicado entre la autovía del Urumea y las vías del tren, en concreto en las inmediaciones de Goiaz Txiki, en el que se estaban depositando escombros y otros residuos.

No es la primera vez que denunciamos vertidos ilegales en la ciudad. En concreto hemos hecho varias en relación a otro situado en Ulia, en el Camino de Mendiola, así como a vertidos ilegales en Ametzagaina. Así mismo, consultando el buzón de la ciudadanía, podemos ver que varios otros vertederos ilegales han sido señalados por la ciudadanía: en la zona de huertas al este de Garbera, en Eskalantegi 74, o en una ladera cerca de Azkuene 35.

En esas ocasiones, el gobierno local se ha comprometido a reforzar el control y a tomar medidas para prevenir esos vertidos, alegando que los lugares en los que suele ubicarse no suelen llegar los servicios de limpieza y que éstos son de difícil acceso. No obstante, si hay personas que están depositando residuos

halakoak) eta obra hondakin astunak uzten badituzte, horrek esan nahi du pertsona horiek ez dutela leku horietara iristeko arazorik; hortaz, udal zerbitzuek ere gaitasuna izan beharko lukete leku horietara iristeko, behar bezalako plangintza baten bitartez.

voluminosos como televisiones, o pesados como escombros, quiere decir éstas pueden acceder a esos lugares, algo que también deberían poder hacer los servicios municipales con la debida planificación.

Eguzkik salatutako zabortegira itzuliz, tokiko gobernuak konpromisoa hartu du zabortegi hori desegiteko, Loiola auzokoarekin egin den moduan.

Volviendo al vertedero denunciado por Eguzki, el gobierno local se ha comprometido a desmantelarlo, al igual que otro en el barrio de Loiola.

Hori guztia dela eta, kontrol mozio hau aurkezten dugu:

Por todo lo anteriormente expuesto, presentamos la siguiente:

KONTROL MOZIOA

MOCIÓN DE CONTROL

1. Donostiako Udalbatzak udal Gobernuari eskatzen dio areagotu ditzala hirian zabortegi ilegalak agertzea prebenitzeko kontrolak.

1. El Ayuntamiento Pleno de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno municipal a aumentar los controles para prevenir la aparición de vertederos ilegales en la ciudad.

2. Donostiako Udalbatzak udal Gobernuari eskatzen dio aldian-aldian kontrola ditzala maiz zabortegi ilegal gisa erabili izan diren lekuak.

2. El Ayuntamiento Pleno de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno municipal a realizar un control periódico de los lugares ya detectados utilizados con frecuencia para vertederos ilegales.

3. Donostiako Udalbatzak udal Gobernuari eskatzen dio seinalezta ditzala zabortegi ilegal gisa erabili izan diren lekuak, adierazi dezala debekatuta dagoela leku horietan hondakinak uztea, eta jakinaraz dezala zein zehapen ekar dezakeen legez kanpoko leku horietan hondakinak botatzeak.

3. El Ayuntamiento Pleno de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno municipal a la señalización de los lugares ya detectados utilizados con frecuencia para vertederos ilegales, que incluya tanto la prohibición de verter en los mismos, como información sobre las sanciones derivadas de verter en lugares no permitidos.

Donostia, 2018ko otsailaren 16a

Donostia, a 16 de febrero de 2018

Sin.: Loïc Alejandro,
Irabazi Donostia taldeko zinegotzia”.

Fdo. Loïc Alejandro
Concejal del Grupo Irabazi Donostia”.

Loïc Alejandro jaunak parte hartu du puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, interviene en este punto el señor D. Loïc Alejandro, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**ATSEDENALDIA**

**13:45EAN, ATSEDENALDIA EGITEN DA ETA BERRIRO ERE EKITEN ZAIO SAIOARI, 15:00AK DIRENEAN.**

**RECESO**

**SIENDO LAS 13:45 H., SE REALIZA UN RECESO Y SE REANUDA LA SESIÓN, CUANDO SON LAS 15:00 H.**

---------------

**II.2.20. Kontrol mozioa, IRABAZI DONOSTIA taldeak aurkeztua, udal taldeei informazioa bidaltzeari buruzkoa.**

“Amaia Martin Garinek, Irabazi Donostia udal taldeko bozeramaileak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikuluarekin bat etorriz, KONTROL MOZIO hau aurkezten du, udal taldeei informazioa bidaltzeari buruzko ZERBITZU OROKORREN Batzordean aurkeztutako interpelazioa dela eta.

JUSTIFIKAZIOA

Hilabete honetako Zerbitzu Orokorren Batzordean, interpelazio bat aurkeztu genuen, udal taldeok informazioa jasotzeko ezarrita dagoen sistemaren bitartez eta Udal Araudi Organikorekin bat etorriz eskatzen dugun

**II.2.20. Moción de control, presentada por el Grupo IRABAZI DONOSTIA, sobre la remisión de información a los grupos municipales.**

“Amaia Martin Garin, Portavoz del Grupo Municipal Irabazi Donostia, de acuerdo con el artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL, consecuencia de la interpelación en la Comisión de SERVICIOS GENERALES sobre la remisión de información a los grupos municipales.

JUSTIFICACIÓN

En la comisión de Servicios Generales de este mes, interpelamos en relación con deficiencias relacionadas con la remisión de la información que los grupos municipales solicitamos a través del sistema establecido

informazioa bidaltzeari lotutako hutsuneak direla eta.

Presidentetzako zinegotzi ordezkari Viles jaunak erantzun zuen eskatzen den ia informazio guztia bidaltzen zuela eta arazoa sail bakoitzaren kudeaketaren ondorio zela. Erantzun hori ikusita, badirudi sailek ez dutela baliabide material eta/edo pertsonal nahikoa taldeen informazio eskaera guztiei erantzuteko, ez baitugu beti jasotzen eskatutako informazioa, edo denbora igaro ondoren jasotzen dugu.

Era berean, ohikoa da udal gobernuak lehenago bidaltzea komunikabideei udal taldeei baino (nahiz eta guk ordezkatzen ditugun herritarrak) sailek, enpresek edo udal erakundeek egiten dituzten txostenak, ikerlanak edo memoriak, bai eta erakunde pribatuei agintzen dizkienak ere, udal kudeaketari edo eskumenari lotutako gaiei buruzkoak.

Oposizioaren eginkizunetako bat da tokiko gobernuaren jarduketen jarraipen bat egitea, eta, horretarako, ezinbestekoa da gardentasuna eta informazioa eskuratzeko sarbidea bermatzea, baita herritar guztientzat ere. Uste dugu gobernuak ahalegin handiagoa egin dezakeela hala gardentasuna nola informazioa eskuratzeko sarbidea bermatzeko; hori dela eta, kontrol mozio hau aurkezten dugu:

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak udal gobernuari eskatzen dio bete ditzala Udal Araudi Organikoak udal taldeek eskatutako informazioa bidaltzeko ezartzen dituen epeak.

para ello y de acuerdo con el Reglamento Orgánico de Pleno (ROP).

El concejal delegado de Presidencia, Sr. Viles, respondió que se remitía la práctica totalidad de la información solicitada, y que era un problema de gestión de cada departamento. A la vista de esta respuesta, parece que los departamentos no cuentan con los medios materiales y/o personales suficientes para atender las peticiones de información de los grupos, porque no siempre recibimos la información solicitada, o la recibimos pasado el tiempo.

Igualmente, es práctica habitual del gobierno municipal trasladar a los medios de comunicación antes que a los grupos municipales (que somos quienes ostentamos la representación de la ciudadanía), informes, estudios, o memorias que elaboran los propios departamentos, empresa o entes municipales, así como los que encarga a entidades privadas, relacionados con temas de gestión o competencia municipal.

Una de las labores de la oposición es la de hacer un seguimiento de las actuaciones del gobierno local; para ello es imprescindible garantizar la transparencia y el acceso a la información, algo que debe incluir también a toda la ciudadanía. Creemos que el gobierno puede hacer un esfuerzo mayor para garantizar tanto la transparencia como el acceso a la información, por lo que presentamos la siguiente:

MOCIÓN DE CONTROL

1. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al gobierno municipal a cumplir los plazos establecidos por el Reglamento Orgánico de Pleno en relación a la remisión de la información solicitada por los grupos municipales.

2. Donostiako Udalbatzak udal gobernuari eskatzen dio sailak behar dituzten baliabide material eta pertsonalez horni ditzala, udal taldeek eskatzen duten informazioa helarazteko lana behar bezala egin dezaten.

2. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al gobierno municipal a que dote a los departamentos de medios materiales y personales necesarios para llevar a cabo de forma adecuada la labor de traslado de la información solicitada a los grupos municipales.

3. Donostiako Udalbatzak udal gobernuari eskatzen dio udal taldeei helaraz diezazkiola zuzenean edo hirugarrenen bitartez egiten dituen txosten, ikerlan, memoria edo bestelako lanak, komunikabideei bidali baino lehen.

3. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al gobierno municipal a que traslade a los grupos municipales todos aquellos informes, estudios, memorias u otros que elabora directamente o a través de encargos a terceros, previo a su envío a los medios de comunicación.

Donostia, 2018ko otsailaren 16a

Donostia a 16 de febrero de 2018

Sin.: Amaia Martin Garin,
Irabazi Donostia udal taldeko bozeramailea".

Fdo.: Amaia Martin Garin
Portavoz del Grupo Municipal Irabazi Donostia".

Eztabaida hasita, Amaia Martin Garin andreak, Jose Luis Arrue Pinto jaunak, Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga andreak eta Juan Ramon Viles Mitxelena jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

año despues de haberse comprometido con ellos el Equipo de Gobierno, no se haya llevado a cabo la actuación, pese a tratarse de una cuestión menor. Y se quejan de que ningún responsable municipal les da cuenta de los retrasos, ni en qué estado se encuentra el proyecto, ni nada.

Berririk ez emana justifikatzeko, zinegotzi ordezkariak esan du Sailak lan karga handia duela eta jada proiektuaren pleguekin lanean ari direla.

Ante la falta de noticias, el Concejal Delgado excusa el retraso en la importante carga de trabajo que tiene el Departamento, que ya está con los pliegos del proyecto.

Aurrekariak ikusita, eta teknikoki erraza den gai hau bizkortzeko eta auzo horretako biztanleei konponbide bat eskaintzeko, Talde Popularrak MOZIO hau aurkeztu du:

En vista de lo que antecede, y en aras de agilizar una cuestión técnicamente sencilla, y de dar una pronta solución al vecindario de la zona, es por lo que el Grupo Popular presenta la siguiente MOCIÓN:

1.- Donostiako Udalbatzak alkateari eta Gobernu taldeari eskatzen dio komunikazioa hobe dezatela Batelarien plazako eta inguruetako biztanleekin, proiektuaren egoera zein den eta aipatutako haurren elementuak egokitzeko epeak zein diren azaltzeko.

1.- El Ayuntamiento Pleno de Donostia-San Sebastián insta al Alcalde y al Equipo de Gobierno a que mejoren la interlocución con los vecinos de la Plaza de Bateleras y alrededores, en orden a informar a los mismos de la situación del proyecto y los plazos para la readecuación de los elementos infantiles mencionados.

2.- Donostiako Udalbatzak alkateari eta Gobernu taldeari eskatzen dio izapideak bizkor ditzala Batelarien plazako haurren jolastokia ahalik eta azkarren berriz jartzeko.

2.- El Ayuntamiento Pleno de Donostia-San Sebastián insta al Alcalde y al Equipo de Gobierno a que agilicen los trámites para la reubicación de los juegos infantiles en la Plaza de las Bateleras a la mayor brevedad.

Donostian, 2018ko otsailaren 16an

En Donostia/ San Sebastián, a 16 de Febrero de 2018

Miren Albistur Garmendia,
Talde Popularraren bozeramailea”.

Miren Albistur Garmendia
Portavoz del Grupo Popular”.

Jose Maria Murguiondo Casal jaunak parte hartu du puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Interviene en este punto el señor D. José María Murguiondo Casal, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**II.2.27. Kontrol mozioa, PP taldeak aurkeztua, taxien sektoreak dituen beharrizanei buruzkoa.**

"Talde Popularraren bozeramaile Miren Albistur Garmendiak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikuluarekin bat etorriz, MOZIO hau aurkezten dio Udalbatzari, Gune Publikoen Batzordeak (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) 2018ko otsailaren 12an izan zuen bileran Donostiako taxien sektoreak dituen beharrizanei buruz egindako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Donostiako taxien sektoreko ordezkariek jakinarazi dute beharrezkoa dela gure hirian sektore horren araudia eguneratu eta hobetzea. Sektorearen beharrizanak berrikusteko eskatzen dute, gizartearen bilakaera eta gailentzen ari diren ohitura berriak kontuan hartuta.

Hala, gure hirian sektore hori arautzen duen araudia, hain zuzen ere Ibilgailu arinen bidezko hiri barruko nahiz kanpoko garraio zerbitzuari buruzko udal Araudia, 1997koa da, hau da, duela hogei urte baino gehiagokoa, eta ez zaizkio azken urteotako araudien arloko aurreikuspenak txertatu. Gainera, prezioak edo

**II.2.27. Moción de control que presenta el Grupo PP sobre las necesidades del sector del taxi.**

"Doña Miren Albistur Garmendia, Portavoz del Grupo Popular, al amparo del vigente artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta para su tratamiento en Pleno la siguiente MOCIÓN a consecuencia de la Interpelación substanciada ante la Comisión de Espacio Público. Obras y Servicios Urbanos, celebrada el día 12 de Febrero de 2018, relativa a las necesidades del sector del taxi en San Sebastián.

JUSTIFICACIÓN

Representantes del sector del taxi de San Sebastián han puesto encima de la mesa la necesidad de actualizar y mejorar la regulación del sector en nuestra ciudad. Reivindican una revisión de las necesidades del sector, teniendo en cuenta la evolución de la sociedad, y los nuevos hábitos que se imponen.

Así, por ejemplo, la normativa que regula el sector en nuestra ciudad, en concreto, el Reglamento Municipal de los Servicios Urbanos e Interurbanos de Transporte con Vehículos Ligeros es del año 1997, hace más de veinte años, y no ha incorporado las previsiones normativas de los últimos años.

zenbatekoak oraindik ere pezetatan ageri dira. Zaharkitutako beste araudi batzuekin ikusi dugun moduan, horrek arazoak ekar ditzake araua aplikatzeko unean.

Además, los precios o cantidades económicas aparecen, aún en pesetas. Lo que, como ya hemos visto en otros casos de normativa desfasada, puede traer una serie de problemas a la hora de aplicar la norma.

Duela hogei urte baino gehiago araudia argitaratu zenetik gauza asko gertatu dira, eta sektorearen egoera aldatu egin da; ondorioz, beharrezkoa da araudirik berrienak aintzat hartu eta txertatzea, Gidaridun Ibilgailuen Alokairua bezalako figurak arautzea, ibilgailu iraunkor edo ekologikoagoei, ordainketa metodoei eta kalean eskatutako lekuan gelditzeari buruzko joerak kontuan hartzea, kalean, ibilgailuak berrikustea edo zenbatekoak eguneratu eta eurotan jartzea.

Desde la publicación del Reglamento, hace más de veinte años, han pasado muchas cosas, y ha variado la realidad del sector, que necesita incorporar y atender a la normativa más reciente, regular figuras como los VTC, atender las nuevas tendencias en cuanto a vehículos más sostenibles o ecológicos, medios de pago, paradas a demanda en la calle, revisión de los vehículos o actualización de cantidades económicas y su conversión en euros.

Gainera, gure hiriko taxiaren sektoreak denbora luzea darama beraientzako mugikortasun plan espezifiko baten eske; plan horrek erdigune izan beharko luke Udalak gutxiago kutsatzen duten ibilgailuen alde egindako apustua, ibilgailuak berritzeko laguntzak eskuratzea edo kaleko errekarga puntuak egokitzea, besteak beste.

Además, el sector del taxi en nuestra ciudad viene solicitando, desde hace tiempo, un plan específico de movilidad para el sector, que ponga el foco en la apuesta del Ayuntamiento por vehículos menos contaminantes, la obtención de ayudas para renovación de la flota o adaptación de puntos de recarga en la calle, entre otras cuestiones.

Mugikortasuneko zinegotzi ordezkariak azken batzordean eman zituen erantzunetatik ondorioztा dezakegu beharrezkoa dela sektorea sustatzea eta egokitzea, aurrean dituen erronkei eta XXI. mende hasieran etorriko direnei aurre egin ahal izateko. Bide luzea dugu aurretik, eta asko dugu egiteko.

De las respuestas ofrecidas por la Concejal Delegada de Movilidad en la última Comisión dedujimos que es necesario impulsar y adaptar al sector para los retos a los que se está enfrentando y los que están por venir en este comienzo del siglo XXI. Nos queda mucho camino por recorrer, y mucho trabajo por realizar.

Udalak esaten du zerbitzu horrek harrotu egiten duela; alabaina, hitzak ez dira nahikoa, eta lanari ekin behar diogu. Horregatik, Talde Popularrak MOZIO hau aurkezten du:

Estamos hablando de un servicio público del que el Ayuntamiento dice enorgullecerse; pero no bastan sólo las palabras, y es necesario ponerse manos a la obra, por lo que el Grupo Popular presenta la siguiente MOCIÓN:

1.- Donostiako Udalbatzak alkateari eta Gobernu taldeari eskatzen die izapideak azkar ditzatela gure hiriko taxien sektorea arautzen

1.- El Ayuntamiento Pleno de Donostia-San Sebastián insta al Alcalde y al Equipo de Gobierno a que aceleren los trámites para

duen araudia ahalik eta bizkorren egokitzeko, zerbitzu horrek erabiltzaileen behar eta nahiei erantzuten jarrai dezan eta etorkizuneko erronketarako prest egon dadin.

adaptar, a la mayor brevedad posible, la normativa que regula el sector del taxi en nuestra ciudad, con el objeto de que este servicio público siga respondiendo a las necesidades y hábitos de los usuarios y se prepare para los retos futuros.

2.- Donostiako Udalbatzak alkateari eta Gobernu taldeari eskatzen die Eusko Jaurlaritzarekin lankidetzan erakunde horrek egindakoaren antzeko Mugikortasun Plan Estrategiko bat egin dezala, gure hiriko taxiaren sektoreak dituen erronka eta beharrei erantzuteko; plan horrek helburu izan beharko du zerbitzu publiko hori egokitzea, hiriko mugikortasunak eta bidaiariak garraiatzeko modu berriek etorkizunean ekarriko dituzten erronkei erantzuteko.

2.- El Ayuntamiento Pleno de Donostia-San Sebastián insta al Alcalde y al Equipo de Gobierno a que, a semejanza y en coordinación con el Gobierno Vasco, elabore un Plan Estratégico de Movilidad para dar respuesta a los retos y necesidades que plantea el sector del taxi en nuestra ciudad, con vistas a adaptar este servicio público a los retos de futuro que presenta la movilidad urbana y las nuevas formas de transporte de viajeros.

3.- Donostiako Udalbatzak alkateari eta Gobernu taldeari eskatzen die plan espezifiko bat egin dezatela pixkanaka gure hiriko taxiak berritzeko, energia alternatiboak erabil ditzaten. Horrez gain, bide publikoan azpiegiturak sortu beharko dira berrikuntza horietarako. Horretarako, askotariko administrazioek era horretako diru laguntzetarako eskaintzen dituzten laguntzak koordinatu beharko dira.

3.- El Ayuntamiento Pleno de Donostia-San Sebastián insta al Alcalde y al Equipo de Gobierno a que elaboren un plan específico de fomento de la paulatina renovación de la flota de taxis en nuestra ciudad hacia energías alternativas, y la consiguiente creación de la infraestructura necesaria en vía pública; coordinando, para ello, las ayudas que las diversas Administraciones ofrecen para este tipo de líneas de subvención.

4.- Donostiako Udalbatzak alkateari eta Gobernu taldeari eskatzen die Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta Eusko Jaurlaritzarekin koordina daitezela Gidaridun Ibilgailuen Alokairu baimenak emateko, horri buruzko araudiak ezartzen duenarekin bat.

4.- El Ayuntamiento Pleno de Donostia-San Sebastián insta al Alcalde y al Equipo de Gobierno a que coordine con la Diputación de Gipuzkoa y el Gobierno Vasco, la concesión de autorizaciones de VTC conforme a lo que marca la normativa al respecto.

Donostian, 2018ko otsailaren 16an

En Donostia/ San Sebastián, a 16 de Febrero de 2018

Miren Albistur Garmendia,
Talde Popularraren bozeramailea".

Miren Albistur Garmendia
Portavoz del Grupo Popular".

Eztabaida hasita, Jose Maria Murguiondo Casal jaunak, Pilar Arana Perez andreak eta Loïc Alejandro jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/la señores/a D. José María Murguiondo Casal, D.ª Pilar Arana Pérez y D. Loïc Alejandro, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**HALA ESKATU DUTENEZ, BOZKETA PUNTUKA EGITEA ONARTU DA / PREVIA SOLICITUD, SE ACCEDE A LA VOTACIÓN POR PUNTOS:**

**27. KONTROL MOZIOAREN 1.GO PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 1 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 27:**

| | |
|---|---|
| **BOZKETAREN EMAITZA:**<br>**ONARTUA.**<br>**GEHIENGOA.**<br>**ALDEKO BOTOAK: 20 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**<br>**AURKAKO BOTOAK: 0.**<br>**ABSTENTZIOAK: 5 – EH BILDU.** | **RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**<br>**APROBADO.**<br>**MAYORÍA.**<br>**VOTOS A FAVOR: 20 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**<br>**VOTOS EN CONTRA: 0.**<br>**ABSTENCIONES: 5 – EH BILDU.** |

**27. KONTROL MOZIOAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 2 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 27:**

| | |
|---|---|
| **BOZKETAREN EMAITZA:**<br>**BAZTERTUA.**<br>**GEHIENGOA.**<br>**ALDEKO BOTOAK: 3 – PP.**<br>**AURKAKO BOTOAK: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**<br>**ABSTENTZIOAK: 7 – (5) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.** | **RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**<br>**RECHAZADO.**<br>**MAYORÍA.**<br>**VOTOS A FAVOR: 3 – PP.**<br>**VOTOS EN CONTRA: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**<br>**ABSTENCIONES: 7 – (5) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.** |

**27. KONTROL MOZIOAREN 3. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 3 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 27:**

| | |
|---|---|
| **BOZKETAREN EMAITZA:** | **RESULTADO DE LA VOTACIÓN:** |

**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 8 – (5) EH BILDU, (3) PP.**
**AURKAKO BOTOAK: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 2 – IRABAZI DONOSTIA.**

**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 8 – (5) EH BILDU, (3) PP.**
**VOTOS EN CONTRA: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 2 – IRABAZI DONOSTIA.**

**27. KONTROL MOZIOAREN 4. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 4 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 27:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 3 – PP.**
**AURKAKO BOTOAK: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 7 – (5) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 3 – PP.**
**VOTOS EN CONTRA: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 7 – (5) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**

---------------

**II.2.28. Kontrol mozioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, legez kanpoko zabortegien kontrola dela eta.**

“Olaia Duarte Lopezek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2018ko otsailaren 12an Gune Publikoen batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Otsailean Eguzki talde ekologistak salatu duenez, Martuteneko Goiaz Txiki baserrirako bidea ezkutuko zabortegi bihurtzen ari da. Izan ere, azken asteetan, denetarik dago han: lastaira zaharrak, askotariko tresnak, enpresa baten logotipoa duten zakuak...

**II.2.28. Moción de control que presenta el Grupo EH BILDU relativa al control de vertederos ilegales.**

“Olaia Duarte López, concejala del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente moción, para su tratamiento en el pleno. La moción es consecuencia de la interpelación tratada en la Comisión de Espacio Público, celebrada el 12 de febrero de 2018.

JUSTIFICACIÓN

Según ha denunciado el grupo ecologista Eguzki en febrero, el camino que conduce al caserío Goiaz Txiki de Martutene se está convirtiendo en un vertedero clandestino. Y es que, en las últimas semanas, se puede observar, en dicha zona, todo tipo de residuos,

como colchones viejos, objetos de toda índole, sacos con el logotipo de una empresa, etc.

Argi dago zabortegi horrek ez duela betetzen indarreko legedia; batik bat, Gizabideari buruzko Ordenantzan eta Bide Publikoaren Erabilera eta Garbitasun eta Hiri Paisaiaren Babespenari buruzko Ordenantzan jasotakoa.

Está claro que este vertedero no cumple con lo establecido por la legislación vigente y, especialmente, con lo que se recoge en la Ordenanza de Civismo y la Ordenanza sobre el Uso y la Limpieza en la Vía Pública y Protección del Paisaje Urbano.

Udal Gobernuak legez kanpoko zabortegi hori desagerrarazteko betebeharra du eta, horretarako, alde hori garbitu eta bide publikoan objektuak eta tresnak bidegabe ez uzteko, eta ohitura hori bukarazteko, udal araudiarekin bat jardun behar du.

Es deber del Gobierno Municipal eliminar este vertedero ilegal, y, para ello, debe limpiar la zona y actuar conforme al reglamento municipal para impedir que objetos y enseres sean depositados de forma ilícita en la vía pública, para erradicar esta costumbre y para sancionar a las personas responsables de estos actos.

Gogorarazi behar dugu, gainera, ez dela lehen aldia Eguzki taldeak horrelako zabortegi klandestinoak aurkitzen dituela agintaldi honetan eta Udal Gobernuaren utzikeria salatzen duela.

Además, hay que recordar que no es la primera vez que el grupo Eguzki localiza, en este mandato, vertederos clandestinos de este tipo y denuncia la dejadez del Gobierno Municipal.

Otsaileko batzordeetan deegatuak adierazi zuen zaila dela horrelako guneen kontrola egitea eta zabortegi klandestinoak detektatzea. Baina, Eguzki taldeak berak adierazi duenez, ez da norbaitek egindako kasu isolatua, astez aste zaborra hazten joan da-eta. Hortaz, ezin dugu ulertu nolatan elkarte batek detekzio lan hau egiteko ahalema duen eta Udalak, ordea, ez.

En las comisiones de febrero, la concejala delegada señaló que resulta difícil controlar este tipo de zonas y detectar los vertederos que, de manera clandestina, se crean ellas. Sin embargo, tal y como ha señalado el propio colectivo Eguzki, éste no es un caso aislado, creado por una sola persona, ya que el vertedero ha ido creciendo semana a semana. Por tanto, no podemos entender que un colectivo tenga la capacidad de realizar esta labor de detección y que el Ayuntamiento, por el contrario, no la tenga.

Azaldutako egoera kontuan hartuta, behean sinatzen duen zinegotziak honako MOZIO hau aurkezten du:

Por todo ello, y teniendo en cuenta la situación expuesta, la concejala abajo firmante presenta la siguiente

KONTROL MOZIOA:

MOCIÓN DE CONTROL:

1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal

1.- El Pleno insta al Gobierno Municipal a

Gobernuari neurriak har ditzala legez kanpoko zabortegien detekzioa bultzatzeko eta azkartzeko.

Donostian, 2018ko otsailaren 16an

Olaia Duarte López
EH Bildu udal taldeko zinegotzia".

adoptar las medidas oportunas tendentes a fomentar y agilizar la detección de los vertederos ilegales.

San Sebastián, 16 de febrero de 2018

Olaia Duarte López,
concejala del grupo municipal EH Bildu".

Olaia Duarte Lopez andreak parte hartu du puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Interviene en este punto la señora D.ª Olaia Duarte López, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**II.2.29. Kontrol mozioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, Udal Gobernuaren erantzun falta dela-eta.**

"Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2018ko otsailaren 12an Pertsonentzako Zerbitzuetako Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Iazko abenduaren 1ean Idazkaritzaren erregistroaren bidez, Donostia Turismo sozietateari dagokion "euskararen erabilera normalizatzeko plana"ren egoera dela-eta, idatziz erantzuteko galdera egin genuen.

**II.2.29. Moción de control que presenta el Grupo EH BILDU relativa a la falta de respuesta del Gobierno Municipal.**

"Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga, concejala del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, somete la siguiente moción a la consideración del Ayuntamiento Pleno. La presente moción trae causa de la interpelación sustanciada en la Comisión de Servicios a las Personas de 12 de febrero de 2018.

JUSTIFICACIÓN

El 1 de diciembre pasado, presentamos mediante registro una pregunta para responder por escrito sobre la situación del Plan de normalización del uso del euskera en la Sociedad de Turismo de San Sebastián. El

2018ko otsailaren 2an, mota guztietako epeak gaindituta, eta oraindik erantzunik jaso gabe, interpelazioa egin genuen. Batzordean delegatuak azalpenak eman zituen planaren diseinuari buruz labur eta gainetik mintzatzen, baina interpelazioari erantzun gabe: alegia, zer dela-eta Udal Gobernuak ez ditu egiten zaizkion galderak erantzuten. Delegatuak berak eman, sinatu eta bidali behar duen informazioa dela jakin arren, teknikariei errua bota zien. Gaur da eguna, bi hilabete eta erdi pasa ondoren, oraindik idatzizko erantzuna ez dugula jaso.

2 de febrero de 2018, superados todos los plazos, y dado que todavía no habíamos recibido respuesta, realizamos una interpelación. En comisión el delegado ofreció explicaciones sobre el diseño del plan, brevemente y a grandes rasgos, pero sin responder a la interpelación: Es decir, ¿cuál es el motivo por el que el Gobierno municipal no responde a las preguntas que se le plantean? Aun sabiendo que es información que debe dar, firmar y remitir el delegado mismo, echó las culpas al personal técnico. Hoy es el día en que, transcurridos dos meses y medio, todavía no hemos recibido respuesta escrita.

Kontuan hartuta azken hilabeteotan jarrera hau errepikatzen ari dela, egokia da Udalbatzan mahaigaineratzea zeintzuk diren Udal Gobernuak bete behar dituen erantzukizunak, are eta gehiago behin eta berriro aipatu eta goratu duenean gobernantza berriaren eta gardentasunaren arabera lan egiten duela. Bada unea Udalbatzarraren Araudi Organikoak ezartzen dituen mekanismoak eta epeak mahai gaineratu eta berauek ezartzen dutena Udal Gobernuak bete behar duela gogoratzeko.

Teniendo en cuenta que últimamente esta postura se viene reiterando, resulta legítimo plantear ante el Ayuntamiento Pleno cuáles son los deberes que debe cumplir el Gobierno municipal, más aún si se tiene en cuenta que repetidamente ha mencionado y ensalzado el hecho de que trabaja en función de una nueva gobernanza y de la transparencia. Ya es tiempo de poner sobre la mesa los mecanismos y plazos que regula el Reglamento Orgánico del Pleno y de recordar que compete al Gobierno municipal dar cumplimiento a lo que en ellos se reglamenta.

Horiek horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako KONTROL MOZIOA:

Es por ello por lo que la concejala abajo firmante presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL

- Donostiako Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari informazio erantzukizunak bete ditzala, gardentasunean eta gobernantza berrian oinarri dituen funtzionamendu batek eskatzen duen bezala, eta Donostiako Udalbatzarraren Araudi Organikoak ezartzen dituen mekanismoak eta epeak bete ditzala.

- El Ayuntamiento Pleno de San Sebastián insta al Gobierno municipal a cumplir las responsabilidades de informar, tal y como exige un funcionamiento basado en la transparencia y en la nueva gobernanza, y a cumplir los mecanismos y plazos regulados por el Reglamento Orgánico del Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián.

Donostian, 2018ko otsailaren 16an

En San Sebastián, a 16 de febrero de 2018

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga
EH BILDU udal taldeko zinegotzia”.

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga,
concejala del grupo municipal EH Bildu”.

Eztabaida hasita, Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga andreak eta Ernesto Gasco Gonzalo jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto el/la señor/a D.ª Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga y D. Ernesto Gasco Gonzalo, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**II.2.30. Kontrol mozioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, Donostiako Udalaren Barne Berdintasun Plana dela eta.**

“Naiara Sampedro Perez EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2018ko otsailaren 12an Zerbitzu Orokorretako Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

AZALPENA

2014ko urriaren 17an, Tokiko Gobernu Batzordeak Donostiako Udalaren Barne Berdintasun Plana 2014-2018 onartu zuen.

Onartutako akordio horretan hiru puntu jaso ziren. Lehenean 2014-2018ko epea zehazten da. Bigarren puntuan planaren jarraipen eta ebaluazioaren arduraduna zehazten da. Eta

**II.2.30. Moción de control que presenta el Grupo EH BILDU sobre el Plan de Igualdad Interno del Ayuntamiento de San Sebastián.**

“Naiara Sampedro Pérez, concejala del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, somete la siguiente moción a la consideración del Ayuntamiento Pleno. La presente moción es consecuencia de la interpelación presentada en la Comisión de Servicios Generales el 12 de febrero de 2018.

JUSTIFICACIÓN

El 17 de octubre del 2014, la Junta de Gobierno Local aprobó el Plan Interno de Igualdad 2014-2018 del Ayuntamiento de San Sebastián.

El acuerdo por el que se aprobó dicho plan recogía tres puntos El primero de ellos establecía como periodo de vigencia los años comprendidos entre el 2014 y el 2018. El

azkenik, planaren jarraipenaren eta ebaluazioaren arduradunak urtean gutxienez hiru aldiz planaren baitan egindako ekintza guztiak eta izandako emaitzak jakinaraziko dizkiola Donostiako Udaleko langileen aukera berdintasuna eta diskriminaziorik eza bermatzeko Batzorde Teknikoari.

segundo punto designaba el departamento responsable de realizar el seguimiento y la evaluación del plan. Y, finalmente, se establecía que dicho departamento daría cuenta, con una periodicidad mínima de tres veces al año, de todas las acciones emprendidas en el marco del citado plan así como de los resultados obtenidos como consecuencia de dichas acciones a la Comisión Técnica para la igualdad de oportunidades y la no discriminación de trabajadoras y trabajadores del Ayuntamiento de San Sebastián.

Hala eta guztiz ere, Udaleko langileen aukera berdintasuna eta diskriminaziorik eza bermatzeko Batzorde Teknikoan planaren inguruko jarraipena ez da aurreikusitako maiztasunaz egiten ari, nahiz eta planaren azken urtean gauden. Honegatik, hauxe da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako

A pesar de todo ello, el seguimiento a la Comisión Técnica para la igualdad de oportunidades y la no discriminación de trabajadoras y trabajadores del Ayuntamiento de San Sebastián no se está realizando con la periodicidad prevista, aunque nos encontramos en el último año de vigencia del plan. Es por ello por lo que la concejala abajo firmante presenta la siguiente

KONTROL MOZIOA:

MOCIÓN DE CONTROL:

1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari, lehenbailehen, Udaleko langileen aukera berdintasuna eta diskriminaziorik eza bermatzeko Batzordea bilerara deitu dezala Planaren jarraipenaren berri emateko.

1.- El Pleno insta al Gobierno Municipal a que convoque, lo antes posible, a la Comisión Técnica para la igualdad de oportunidades y la no discriminación de trabajadoras y trabajadores del Ayuntamiento de San Sebastián, para que proporcione a sus miembros la información oportuna sobre el seguimiento del plan.

2.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari 2014ko urriaren 17an 2014-2018 Planarekin batera onartutako akordioa bete dezala.

2.- El Pleno insta al Gobierno Municipal a que cumpla el acuerdo que 17 de octubre del 2014 aprobó junto con el Plan 2014-2018.

3.-Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari 2018an, Udaleko langileen aukera berdintasuna eta diskriminaziorik eza bermatzeko Batzordearekin batera, plana ebaluatu eta diagnostikoa egin eta 2019-

3.- El Pleno insta al Gobierno Municipal a que el año 2018 realice, junto con la Comisión Técnica para la igualdad de oportunidades y la no discriminación de trabajadoras y trabajadores del Ayuntamiento de San

2023ko plana diseinatzeari ekin diezaiola.

Sebastián, la evaluación y el diagnóstico de dicho plan y comience a diseñar el plan 2019-2023.

Donostian, 2018ko otsailaren 16an

Naiara Sampedro Perez
EH Bildu udal taldeko zinegotzia”.

San Sebastián, 16 de febrero de 2018

Naiara Sampedro Pérez,
concejala del grupo municipal EH Bildu”.

Naiara Sampedro Perez andreak parte hartu du puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Interviene en este punto la señora D.ª Naiara Sampedro Pérez, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**II.2.31. Kontrol mozioa, EH BILDU Taldeak aurkeztua, emakumeen eta gizonen arteko soldata arrakala dela eta.**

“Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2018ko otsailaren 12an Zerbitzu Orokorretako Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

2017ko azaroan Vera Jourova Europako Batzordeko Genero Berdintasuneko komisarioak nabarmendu behar izan zuen Europako Batasunean emakumeek, batez beste, gizonek baino %16 gutxiago kobratzen dutela, genero arteko soldata tartea murrizteko

**II.2.31. Moción de control que presenta el Grupo EH BILDU relativa a la brecha salarial entre mujeres y hombres.**

“Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga, concejala del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente moción para su tratamiento en Pleno. Mozioa 2018ko otsailaren 12an Zerbitzu Orokorretako Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

El mes de noviembre de 2017, la comisaria europea de Igualdad de Genero, Vera Jourova, tuvo que destacar que en el seno de la Unión Europea las mujeres, de promedio, cobran un 16 % menos que los hombres, al presentar el plan para reducir la brecha salarial

plana aurkeztu zuenean. Harrez gero, soldata arrakala hizpide izan da, gertuenetik urrutienera, mota eta maila guztietako eragileek horren inguruko datu eta iritziak plazaratu dituztela. Arrakalaren arrazoiak sakonak bezain sotilak dira eta Jourova komisarioak berak hiru faktore nabarmendu zituen: sektore arteko segregazioa, goi karguetara ailegatzeko ezintasuna eta zaintzaren zama; hau da, segregazio horizontalari eta segregazio bertikalari genero rolek eragindakoak gehitu behar zaizkio.

Hiriko egoerari dagokionez, azken urteotako krisi ekonomikoaren eragin negatiboak egoera okerragotu besterik ez du egin. 2014ko datuen arabera (Inklusio Diagnostikoa), langabezia tasa %1,20 altuagoa zen emakumezkoen artean (%13,86) gizonezkoen artean (%12,67) baino. Bi urte geroago, datua okerragora joan da, tartea hiru puntu igo da-eta. Udalaren web orriak ematen dituen datuen arabera, 2016ko langabezia tasa: gizonak % 9,20, emakumeak % 12,20. Rol banaketa desorekatuak, beste faktore batzuekin batera, enpleguaren prekarizazioan zuzenean ere eragiten du, behin behinekotasun tasa eta enplegu partzialen tasa askoz altuagoak baitira emakumeen artean. Hala esplikatzen da, adibidez, 2013an emakumezkoen errenta gizonezkoena baino baxuagoa izatea; zehazkiago %10-%35 bitartean (Hiriko Emakumeen eta Gizonen egoerari buruzko Diagnostikoaren datuak, ezin direnak konparatu Udalaren web orriak ematen dituenekin, datu orokorra gaurkotua egon arren, ez baitago banandua eta Estrategia Bulegoak eman zituenak ere berdin daude. Sustapen sozietateak ere ematen dituen datuen artean bereizte hau ez da egiten sistematikoki; bertan garrantzizkoa da “Barómetro de Economía Urbana”, esleitzekotan egongo dena). Donostiako datu zehatzen faltan mahai gaineratuko dugu Hego

entre géneros. Desde entonces, la brecha salarial ha sido tema de debate desde los foros más cercanos a los más alejados, y agentes de todo tipo y nivel han dado a conocer datos y opiniones al respecto. Las razones de la brecha son tan profundas como sutiles, y la comisaria Jourova misma destacó tres factores: la segregación intersectorial, la imposibilidad de acceder a altos cargos y la carga de la custodia; es decir, a la segregación horizontal y vertical, hay que añadir los factores originados por los roles de género.

Por lo que atañe a la situación de San Sebastián, la influencia negativa de la crisis económica de los últimos años únicamente ha agravado la situación. Según datos de 2014 (Diagnóstico de Inclusión), la tasa de paro es un 1,20 % más alta entre las mujeres (13,86 %) que entre los hombres (12,67 %). Tras dos años, el dato ha ido a peor, puesto que la diferencia se ha incrementado en tres puntos. Según los datos de la hoja Web municipal, en 2016 la tasa de paro: hombres, % 9,20; mujeres, % 12,20. El reparto desequilibrado de roles, junto a otros factores, también influye directamente en la precarización del empleo, puesto que las tasas de empleo precario y parcial son muchos mayores entre las mujeres. Así se explica, por ejemplo, el que el nivel de renta en 2013 entre las mujeres sea menor que el de los hombres; en concreto, entre un 10 % y un 35 % (datos del diagnóstico sobre la situación las mujeres y los hombres en San Sebastián, que no se pueden comparar con los que ofrece la hoja Web municipal, pues aunque el dato general esté actualizado, no está desagregado, y los que ofreció la Oficina de Estrategia, también están igual. En los datos que ofrece la Sociedad de Fomento tampoco se realiza esa diferenciación sistemáticamente; entre los más importantes están los del Barómetro de Economía Urbana,

Euskal Herri mailakoa: emakumeen soldatak gizonezkoenak baino %33,6 baxuagoak dira.

que estará por adjudicar). A falta de datos concretos sobre San Sebastián, pondremos sobre la mesa los del País Vasco: los salarios de las mujeres son un % 33,6 más bajos que los de los hombres.

Halaber, Donostiako Udala bera ez da arrakala hori handitzen duten faktoreetatik kanpo geratu, eta oraindik ere kristalezko sabaia egon badago. Hala jasotzen zen 2014an aurkeztu zen "I. Donostiako Udalaren barruko Berdintasun Plana 2014-18" delakoan, zeinak bi motatako segregazioen eta zaintzagatiko datu zehatzak jasotzen zituen. Interpelazioa aurkezterakoan azaldu genuen ez dela jarraipenezko txostenik zabaldu, datu berrituak hartu ahal izateko. Egite beretik ere ondorioztatu behar izan genuen txostena ez dela egin eta ez zitzaigun kontrakorik agertu, baina 2018an jarraipena emateko, diagnostikoa egitekotan egongo da, eta, beraz datuok laster eskura.

Además, el mismo Ayuntamiento de San Sebastián no ha quedado al margen de los factores que incrementan esa brecha, y todavía existe el denominado "techo de cristal". Así lo recogía el denominado I Plan Interno de Igualdad del Ayuntamiento de San Sebastián 2014-2018, que recogía datos concretos sobre los dos tipos de segregaciones y sobre custodia. Al exponer la interpelación, explicamos que no se ha difundido informe alguno de seguimiento, para disponer de datos actualizados. En ese mismo acto tuvimos que deducir que no se ha realizado el informe y no se nos manifestó lo contario, pero para ofrecer el seguimiento en 2018, estará por realizarse el diagnóstico y, por tanto, pronto dispondremos de los datos.

Beraz, Europaren helburua, alegia emakumeen eta gizonen arteko soldata-arrakala gutxitzea, aintzakotzat hartuz gero, bai Donostia bai Donostiako Udala eragiteko eremuak dira. Eta kontuan hartuta, aurten bi planak bukatuko direla, bai Hiriari dagokiona, bai Udalaren barrukoari dagokiona, une bereziki inportantean gaude, hurrengoei heltzeko, 2018 hau balorazio urtea delako, bai eta diagnostikoak berritzekoa ere. Udalaren egiturak diagnostiko eta balorazio horiek egiten ari direlakoan, gutxienez Udal Gobernuak web orrian publikatzen dituen datuak sexuen arabera bananduak ematea lagungarria izango litzateke hiritarrek, eragileek edo/eta udal taldeek azterketa egokiak egin ahal izateko. Hala agindu arren, hilabetea joan, hilabetea etorri, datu guztiek jarraitzen dute ohiko orokortasunean, interpelazioan azaldu genuen moduan. Erantzun zitzaigun prestatzen ari den ordenantzak aginduko duela datuak nola jaso

Por tanto, tanto San Sebastián como el Ayuntamiento de San Sebastián son espacios en los que actuar si se considera el objetivo europeo: reducir la brecha salarial entre mujeres y hombres. Teniendo en cuenta que este año finalizarán dos planes, el referido a la ciudad y el interno del ayuntamiento, estamos en un momento especialmente importante, para poder acometer los siguientes, porque este año 2018 es año de valoraciones, así como de actualización de los diagnósticos. En el convencimiento de que las estructuras municipales están elaborando esos diagnósticos y valoraciones, como mínimo, ayudaría el que los datos que publica el Gobierno municipal la Web municipal, se ofrecieran desglosados por sexos, para que ciudadanía, agentes sociales o grupos municipales puedan realizar análisis adecuados. Aunque se comprometió a ello, transcurren los meses y los datos siguen en su

baina interpelazio berean agertu moduan legeak eta udal planek jadanik eskatzen dute datu ematea sexuen arabera banandua. Indarrak beste hainbat arlotan jarri izan dira asko, gehiegi zegoelako egiteko baina datuak eskura jartzeko gaitasuna egun inoiz baino handiagoa da. Sistema informatikoek lehen ematen ez zituzten erraztasunak ematen dituzte gaur egun eta administrazio guztiak, hau barne, lanean ari dira datuak herritarren eskura jartzeko. Beraz, orain da unea ziurtatzeko datu banaketa hau ere egingo dela, ziurtatzeko ez dela bigarren mailakotzat joko.

habitual generalización, tal y como explicamos en la interpelación. Se nos respondió que la ordenanza que se está elaborando regulará el modo de recoger los datos, pero, tal y como expusimos en la interpelación, las leyes y planes municipales ya exigen en la actualidad que los datos se ofrezcan desagregados por sexos. Se han puesto las fuerzas en otros aspectos en el convencimiento de que era mucho, demasiado lo que estaba por hacer, pero, hoy en día, es mayor que nunca la capacidad de tener los datos a mano. Los sistemas informáticos ofrecen en la actualidad facilidades inexistentes antes, y todas las administraciones, incluida la nuestra, están trabajando para poner los datos al alcance de la ciudadanía.  Por tanto, éste es el momento de garantizar que esa desagregación de datos se llevará a cabo, para asegurar que no se considerará de segundo nivel.

Soldata arrakala generoagatiko desberdinkerian oinarritzen den sistemaren parte da. Urte luzeetako arazo estruktural hau iraultzeko estamentu guztietatik eragiteko asmo sendoa beharrezkoa izango da, bai eta halaber bakoitzak detaile guztiak zaintzea ere. Donostiako Udalari dagokionez, kanpo zein barne mailan, hirian zein barne funtzionamenduan eragiteko aukera du, eta, egungo testuinguruari egokituta, Udal Gobernuak horren ardura lehenbailehen hartzea beharrezkoa da.

La brecha salarial es una parte del sistema basado en la discriminación a causa del género. Será precisa una voluntad firme desde todos los estamentos para poder dar la vuelta a este problema estructural de largos años, y, al mismo tiempo, que cada cual cuide todos los detalles. Por lo que se refiere al Ayuntamiento de San Sebastián, , tiene la posibilidad de incidir tanto a nivel externo como a interno, tanto en la ciudad como en el funcionamiento interno, y, adecuándose al contexto actual, es preciso que el Gobierno municipal asuma esa responsabilidad cuanto antes.

Horiek horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako KONTROL MOZIOA:

Es por ello por lo que la concejala abajo firmante presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL

- Donostiako Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari, hiru hilabeteren epean, “I. Donostiako Udalaren barruko Berdintasun Plana 2014-18” delakoaren jarraipenezko txostena egiten duenean, genero arrakala

- El Ayuntamiento Pleno de San Sebastián insta al Gobierno municipal a que, en un plazo de tres meses, cuando realice el informe de seguimiento del I Plan Interno de Igualdad del Ayuntamiento de San Sebastián 2014-2018,

neurtzeari begira, Udaleko langileei dagozkien soldaten datuak bertan jaso eta, dagokien egiturei emateaz gain, Berdintasunaren aldeko Kontseilu Sektorialari eta udal taldeei ere aurkez diezazkien.

con objeto de medir la brecha de género, recoja en él los datos sobre los salarios de la plantilla municipal y a que se los presente al Consejo Sectorial de Igualdad y a los grupos municipales, además de ofrecérselos a las correspondientes estructuras.

- Donostiako Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari, egingo dituen hurrengo datu bilketak, hiriari buruzkoak, esleitzerakoan sexuen araberako aldagaia zehazteko eska dezala, diagnostikoa berritzeko baliagarri izateaz gain, ondoren, Udalaren web orrien edo bestelakoen bidez ematen dituen informazioetan datuak bananduta ager daitezen.

- El Ayuntamiento Pleno de San Sebastián insta al Gobierno municipal a que en las próximas recogidas de datos que lleve a cabo, exija, al realizar la adjudicación, que se concrete la variable de la desagregación en función de los sexos, para que, además de resultar útil para actualizar el diagnóstico, posteriormente, aparezcan desagregados los datos en las informaciones que se ofrecen mediante las hojas Web municipales u otros medios.

Donostian, 2018ko otsailaren 16an

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga
EH BILDU udal taldeko zinegotzia".

En San Sebastián, a 16 de febrero de 2018

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga,
concejala del grupo municipal EH Bildu".

Eztabaida hasita, Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga andreak, Amaia Martin Garin andreak, Miren Albistur Garmendia andreak, Ernesto Gasco Gonzalo jaunak eta Juan Ramon Viles Mitxelena jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/las señores/as D.ª Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga, D.ª Amaia Martín Garín, Dª. Miren Albistur Garmendia, D. Ernesto Gasco Gonzalo y D. Juan Ramón Viles Mitxelena, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**HALA ESKATU DUTENEZ, BOZKETA PUNTUKA EGITEA ONARTU DA / PREVIA SOLICITUD, SE ACCEDE A LA VOTACIÓN POR PUNTOS:**

**31. KONTROL MOZIOAREN 1.GO PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 1 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 31:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**

BAZTERTUA.
GEHIENGOA.
ALDEKO BOTOAK: 10 – (5) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.
AURKAKO BOTOAK: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.
ABSTENTZIOAK: 0.

RECHAZADO.
MAYORÍA.
VOTOS A FAVOR: 10 – (5) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.
VOTOS EN CONTRA: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.
ABSTENCIONES: 0.

31. KONTROL MOZIOAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 2 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 31:

BOZKETAREN EMAITZA:
ONARTUA.
AHO BATEZ.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:
APROBADO.
UNANIMIDAD.

---------------

ETA BILERAK BESTE XEDERIK EZ DUENEZ, LEHENDAKARITZAK, AKTAKO LEHEN ORRIAREN BURUAN ADIERAZITAKO EGUNEKO ARRATSALDEKO BOSTAK HOGEITA BI GUTXIAGOTAN AMAITUTZAT JO DU BILERA. ETA NIK, IDAZKARI NAIZEN ALDETIK, BILERAN ESANDAKO GUZTIAREN FEDE EMATEN DUT:

Y NO SIENDO OTRO EL OBJETO DE LA SESIÓN, LA PRESIDENCIA LA DECLARA TERMINADA, LEVANTÁNDOSE EL ACTO, SIENDO LAS DIECISÉIS HORAS Y TREINTA Y OCHO MINUTOS DE LA FECHA EXPRESADA EN EL ENCABEZAMIENTO DE LA PRESENTE ACTA, DE TODO LO CUAL, YO, EL SECRETARIO, DOY FE:

LEHENDAKARIA: / EL PRESIDENTE:

IDAZKARIA: / EL SECRETARIO: